

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1992ko Urtarrilak 31, 136. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**PELLO ZABALA**  
Arantzazutik  
eguraldiaren berri

# Enpresari berriak

Joseba





I N T E R  
N T E R  
S T U D I O  
R E T N I

- Proiektuak egitea
- Obra zuzendaritza
- Berrikuntzak
- Anagramak

GALDETU  
KONPROMEZURIK  
GABE

I N T E R  
N T E R  
S T U D I O  
R E T N I

**BELVIS PARDO**  
BARRU  
DISEINATZAILEA  
4147. Kolejiatu zenbakia

Maala, 17-1.C  
Tfnoa: 79 51 25  
A R R A S A T E



*Salterain*

Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur  
egun eskura dauzkazun leiho  
miresgarriak, ez hotsik, ez berorik,  
ez soinurik...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Eorb., 20  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58 ARRASATE



# ARRASATE PRESS ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea, 1 / 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi

## Publizitatea eta harpidetza:

Amaia Sanz  
Tfnoa: 77 08 15

## Maketazioa:

Goio Arana

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,  
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

## Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Joxe Ramon Elortza, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Jon Garai, Amaia Jauregi-Arraburu, Atalataikoan, ASA, Xabin Arrieta, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Andoni Urzelai, Udalako Ingurugiro Eskola.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

## Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# Kondoiaren iraultza

**G**aur goizean nire eskuetara iritsi diren hiru egunkari desberdinek, artikulu honen tituluak mugatzen duen adminikuluari buruzko informazioa zekarten, elkarrekiko antzik ez zeukaten arren. Urte gutxi direla, guztiz gai marginal eta ia ia tabu zitzaigun kondoiak garrantzi nabaria hartu du gure artean, zorionez ala zoritxarrez.

Hiru albisteak urrundik zetozen arren, mundua bizitzen ari den zalantza, atsekabe... eta kontraesanaren ispilua direla iruditu zaidalarik, lerro hauetara ekarri nahi izan ditut, azken finean eguneroko kurpilaren islada bait dira.

Txinarrek, euren egutegiari dagokionez, Ahariaren urtea utzi dute atzean Tximinoarena igarotzeko. Pozez beterik eman omen diote ongiatorria urte berriari, tximinoa Inperio Haundiko menpekoek gehien estimatzen duten animalia baita. Ugaltasun eta zorionaren ezaugarritzat daukate txinar mitologian. Agian horregatik, astrologian eta, batipat, txinarren ohituretarako atxikimenduan sinesten dutenak beldurrez daude, aurtan Txinan 30 milioi jaiotza berri izan bait daitezke, hau da, urte arrunt batetan izaten denaren bikoitza. Txinar agintariek, sendi planifikazioari ahalik eta bitartekorik egokienak eskaini guran, mila milioi kondoi banatuko dituzte herritarren artean. Dena den, ez omen daude

seguru, jaiotzen murrizketa lortuko dutenik.

Munduan preserbagailu gehien erabiltzen dutenak japoniarrak ei dira. Betidanik izan omen dute profilaktikorako zaletasun aparta. Eta, batere lerdoak ez direnez gero, berez aspalditik garatua zeukaten industriari neurri erraldoiak ipintzen ari zaizkio: iaz 2.000 milioi pezeta saldu zituzten produktu horretan. Marka ederra, alajaina. Baina aurtan bi bider gehiago egingo dute, batez ere Estatu Batuak eta Mendebal Europarako esportazioei esker. Hau da, elektronika eta berebiler ezezik, antza, latexaz ere bonbatazako gaituzte laster.

Azkenik, hirugarren albisteak dioenez, Bogotan milioi erdi kondoi izan omen dira lapurtuta, merkatu beltzean saltzeko. Ekonomiaren oinarrizko kontzeptuek darakusten bezala, eskabideak eskaintza baino indar gehiago azaltzen denean prezioak disparatu egiten dira. Colombian, dirudienez, beste gauza askorekin legez kondoiaren eskaintzan ere defizitarioak dira.

Nahiz eta inoiz frogatu ahal izan ez dudana, Arrasaten ba omen zen, duela hogeit bat urte, "gomazko" antisorgailutako lantegiren bat. Garai haietako hestutasunari eutsi ahal izan baliote... gaurregun herriko industriarik sendoenetakoa izango zen. Ezetz?

J. M. VELEZ DE MENDIZABAL

**Memesa  
79 42 22**

**Pando**

**PINTURAK eta  
PAPEREZTAPENAK  
Aragoi, 6-3. Esk.  
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39**

**Jesus M. Sanpedro Medina Dk.**

**AZALEKO ETA BENEREAR  
GAISOTASUNAK**

**Kontsulta orduak:  
Astelehena, asteazkena eta ostirala  
4etatik 8etara**


S. Bixente Ferrer, 4 etxabea Esk.  
ARRASATE Tfnoa: 79 27 67





**gili gili**

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**ZANGITU**  
**C. B.**  
**PINTURAK ETA**  
**PAPER PINTATUAK**

Olarte, 29  
Arrasate  
Tfnoa: 79 91 82

D. Irala  
Bergara  
Tfnoa: 76 19 54

**ARAMAIO**  
**okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

**Sorginak ala Zurginak?**

Azaroak 1eko Arrasate Press-en (124. zkia) *Usteak Uste* zutabeen bi aldiz "Sorgin kale" irakurtzeak leku-izenen erabileraz gogoeta batzuk egitera bultzatu nau.

Aitortu behar da gaur egun Lagunilla tábernatik gora doan kantoari herriak "Sorginkale/Sorginkantoi" deitzen diola, jatorrizko "Zurginkale" ordezkatzuz.

Caro Barojak dioskunez (Los vascos y la historia a través de Garibay) Garibay-ren garaian "Aroz-kale" zena gerora "Zurginkale" bihurtu da. Eta gaineratzen du: "pero todavía se ha llegado a más y para algunos "Surguin-cantoi" es hoy, sencillamente, "Sorguin-cantoi", haciendo intervenir a los brujos en el nombre".

Zurginak sorgin eta sorginak zurgin, nahasmena sortua dugu. Kontua da izen hau idatzi behar dugunean zein forma aukeratzin dugun. Ni neu izen zaharraren aldekoa naiz, baina egon daitezke bestea maiteago dutenak (artikulu horren egilea, kasu). Bestalde, esan behar da Arrasate Press-en bertan "Zurgin Kantoi" ere ikusi dudala, kantoi horretako tabernaren baten publizitatean. Izen zaharra hautatu dute aurtengo Arrasateko Eraikuntzen Erroldan ere: "Zurgin kantoia". Izen zaharra berreskuratzeko joera dagoela dirudi, beraz.

Ohartxo bat bukatu aurretik. Arrasate Press aldizkaria gure herritar askorentzat ia euskarazko irakurgai bakarra dela kontutan izanik, uste dut ahalegin guztiak egin behar direla eskaintzen den euskara (eta informazioa ere bai, nola ez!) ahalik eta aberatsena eta jatorrena izan dadin. Eta toponimiari ere bere garrantzia eskaini beharko genioke. Esate baterako: Santa Marina, Santamaina, Santamaña edo Kanpantzar, Kanpatazar, Kanpazar; forma guzti hauek Arrasate Press-en ikusi ahal izan ditut. Bateratzera jo beharko genukeela pentsatzen dut.

Eskerronez eta mirespenez, zuen irakurle aspergaitza.

JOSE LUIS HORMAETXEA, TXIPI

**Ertzainak eta euskara**

Kaixo:

Eskutitz hau larunbatean, hilak 18, goizaldean gertatutakoa kontatu eta salatzeko da.

Nire laguna bere kotxean zihoan Ertzaintzaren kotxe bat bere atzetik gelditzeko seinaleak eginez zetorrela konturatu zenean. Gelditu eta ertzain bat hurreratu zitzaion dokumentazioa eskatuz. Gure lagunak bera euskalduna zela eta mesedez euskaraz berba egiteko eskatu zion. Ertzaina orduan bere nagusiei abisatu zien. Nire lagunak berean jarraitzen zuela ikusirik, kotxetik bortizki, atera eta gero, esposatu eta Ertzainaren basera eraman zuten. Han, mota guztietako burlak eta mehatxuak jasan behar izan zituen (Como no hables en castellano te vas a tirar el fin de semana en el calabozo)

Gaua kalabozoan pasa ondoren, niri, bere emazteari, deitu zidaten han zegoela esanez eta joateko. Asuntua honetan zegoen: erderaz ez egiteko posturan jarraitzen bazuen, beste egun bat gutxienez atxilotuta jarraitu behar zuen (interpretaririk aurkitzea ezinezkoa zelako asteburuetan) eta erderaz egiteari amore ematen bazion, deklaratu eta berehala joan ahal izango zuen etxera.

Azkenean, erderaz deklaratu eta laster etxeratu zen baina benetan egoera kafkianoa bizi genuen soil-soilik euskaraz egin nahi izateagatik.

Arrasateko Ertzaintza publikoki salatu nahi dut denbora guztian azaldu zuen euskararen kontrako jarreragatik.

Guzti honen ondorioa, ertzainek esan ziguten bezala hauxe da: gu, euskaldunok, behartuta gaude edozeinek eskatuta erderaz mintzatzerantz baina inork ez du herri honetan euskaraz jakiteko obligaziorik. Beraz, non daude euskaldunon eskubideak? Noiz arte izan behar euskaldunok burua makurtzen dugunok?

E.L.



# Elurra gustatzen zaizu?



**Jose Mari Perez**  
(Langilea)

Bai, gustatzen zait. Egiten duenean jolasten bezala ibiltzen naiz, ia umeak bezala; igarotako garaiak gogoratu nahian edo.



**Angelita Pascual**  
(Etxekoandrea)

Asko. Urkulura igo eta hantxe ibiltzen gara, gustora gustora. Atzo ere, han izan nintzen, asko gustatzen zait eta.



**Nerea Zabala**  
(Langabetua)

Bai, asko. Mendira joatea gustatzen zait elurra egiten duenean, eta hemen behean egiten duenean etxean egotea.



**Pedro Pacheco**  
(Langilea)

Gustatzen zait, bai. Alabekin mendira joatea gustatzen zait eta kalean egiten duenean, bertan jolastea ere bai.



**Joxe Mari**  
(Umea)

Ez, hotza da.



**Laida Benitez**  
(Umea)

Bai, asko gustatzen zait bolak botatzea.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak**  
**Otzaratzarrak**  
**Giltzak gordetzeko armairuak**  
**Erremintak eramateko gurdiak**  
**Erremintak gordetzeko armairuak**  
**Lan egiteko aulkiak**

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
  - \* Estimulazio goiztiarra
  - \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz berreziera)
  - \* Logopedia
  - \* Laguntza-terapia
  - \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia
- (Ohe-bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

# PUB HAIZEA





**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulanziazak .....	45 87 44
--------------------------------	----------

**UDALTAINGOAK**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZIA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

**GARRAIOAK**


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuena egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartera .....	79 87 77
--	----------



31

**OSTIRALA**

- Zinea: Alai: "Terminator 2" (5-7.30-10).
- Haratuzteak 92 Kartel Lehiaketarako lanak entregatzeko azken eguna.
- Diapositiba-emanaldia: "Shisha Pangma", arratsaldeko 7etan Monterronen.
- Futbolin txapelketa, Gazte-txean arratsaldeko 8.30etatik aurrera.
- Meatzerrekako jaiak: Gaueko 9etan herri-afaria auzoko jubilatuen omenez eta 11etan erromeria *Anaiak* taldearekin.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

1

**LARUNBATA**

- Zinea: Alai: "Terminator 2" (5-7.30-10)
- Meatzerrekako jaiak: Arratsaldeko 3etan ume eta gazte-entzati jolasak eta herri kirolak; 5etan, mus txapelketa;

**Kirol Agenda**

**Futbitoa**

- Zaldibarko Futbito Txapelketaren barne, partidua ugari jokatuko dira larunbata eta igandean.
- Cnes. Brues - Bacomat, Iturripen larunbatean arratsaldeko 6etan.

gaueko 11etatik aurrera erromeria *Anaiak* taldearekin eta goizaldera txarri harrapaketa eta txokolatada.

- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina  
Gauetz: Estella, Bergara

2

**IGANDEA**

- Zinea: Alai: "Terminator 2" (5-7-9.30)
- Meatzerrekako jaiak: Egurdiko 12etan meza San Valerio ermitan. Ondoren Goikobalu abesbatzaren ekitaldia. Egurdiko 2etan buruhandiekin jaien amaiera.
- Goardiako farmazia: Egunez: A. Ruiz, Maala.  
Gauetz: Estella, Bergara.

3

**ASTELEHENA**

- Zinea: Alai: "Terminator 2" (7-9.30)
- Eskola Politeknikoan Fagorreko Kontrolaren programa eta erabilpenari buruzko

ikastaroaren hasiera.

- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres.  
Gauetz: Mozos, Bergara.

4

**ASTEARTEA**

- Zinea: Alai: "Terminator 2" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerrias.  
Gauetz: Camacho, Bergara.

5

**ASTEAZKENA**

- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz.  
Gauetz: Puy, Bergara.

6

**OSTEGUNA**

- Hitzaldia: "Análisi bioenergetikoa", AEDn arratsaldeko 6etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola.  
Gauetz: Guallar, Bergara.

**Futbola**

- Mondra-Ondarroako Aurrera, igandean arratsaldeko 3.45etan Atxabalpen.
- Mondra - Eibar, emakumezkoen futbol partidua, igandean Atxabalpe ondoan goizeko 9.30etan.

**Saskibaloia**


- Centraljet Euskal Air - Paulés, Musakolako kiroldegian larunbatean arratsaldeko 6etan.



## Liburuak

### • Kapitain Frakasa

Anjel Lertxundiren liburua Kapitain Frakasa izenburuko literatur sailekoa eta nobela da. Planteamendua jenero beltzarena badu ere, jeneroaren mugak gainditzen ditu, erreflexiorako gaia emanez. Marseille eta Ivrea artean gertatzen da istoria. Antibes, Ventimiglia. Mafioso eta espekulatuzaile talde bateko partaideak pasaporte faltsu bat jasoko du.



## 25. urteurrena

San Frantzisko Xabier Ikastolaren 25. urteurrena dela eta izango diren ekintzei hasiera emateko edo, afaria izango da asteburu honetan. Berez, lehen hiru promozioetako ikasleak eta zenbait irakasle dira bilduko direnak, baina beste edozeinek ere joan nahi izanez gero, ikastolara dei egin dezake.

Larunbat iluntzeko 8etan bilduko dira Monte tabernan poteorako eta 9etan Kataiden afaria, trikitilari, dultzainero eta bertsolariekin.

## Deialdiak

### • Santa Ageda

Aurten ere, ohituria jarraitu, asteartean, hilak 4, abestera ir-



## San Valerioko jaiak

### Ostiral 31n hasi eta hiru egunez

Mietzerreka auzoan asteburu honetan, urtarrilak 31, otsailak 1 eta 2, jaiak ospatuko dituzte. Ostiralean, arratsaldeko 8etan jaiari hasiera emango zaie, gaueko 9etan herriafaria izango dute auzoko jaubilatuaren omenez eta gaueko 11etan eta goizalderarte *anaiak* taldearekin erromeria. Larunbatean, arratsaldeko 3etan ume eta gazteentzat jolasak, arratsaldeko 5etan XI. mus txapelketa. Txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago eman beharko dira lizenak eta bikote bakoitzak 2.000 PTA ordaindu beharko ditu, lehenengo saria 25.000 PTA, txapela eta trofeoa; bigarrena, 15.000 PTA eta trofeoa; hirugarrena, 10.000 PTA eta laugarrena azkenik, 6.000 PTA izango da. Gaueko 11tan, anaiak taldearekin erromeria eta goizaldean txerri harrapaketa eta txokolatada egongo da. Igandean azkenik, eguerdiko 12etan meza eta ondoren *Goikobalu* abesbatza. Jaiari amaiera emateko eguerdiko 2etan buruhandien saioa.

tengo dira Santa Agedako koruak. Koru hauen asmoa jasotako diruaz gaixoei, langabetuei, banandu diren familiei eta antzekoei laguntza ematea izaten da.



### • Diapositiba emanaldia

Gaur, urtarrilak 31, diapositiba emanaldia izango dugu Monterroneko aretoan, arratsaldeko 7etan, Shisha Pangman. Aurkezleak Alex Zubia eta Felix Azkarate izango dira. Udaketxeko leihoan, berriz, Joseba Urkia Atxabaltarrak Himailayan ateratakoak ikusgai.

## Ikastaroak

• **Alemanera eta Errusiera**  
Ahizke-Cim-en aleman eta errusiera ikastaroak hasiko dira otsailaren 17an. Ikastaroen

maila hasierakoa izango da eta asteen sei ordu emango dira. Aleman ikastaroaren ordutegia 8etatik 10etara edo 9etatik 11etara izango da ikasleen araberak. Errusiera ikastaroa, berriz, 10.30etatik 12.30etara edo 11etatik 1etara ikasleen komentzieara. Matrikula egitea nahi dutenak lehen bait lehen egin beharko dute, 790132 telefonora deituta edo Araba Etorbideko 4.eko bulegoetara, San Andre-sera joan.

## Lehiaketak

### • Futbolin txapelketa

Gaztetxean, gaur bertan arratsaldeko 8etan futbolin txapelketari emango zaio hasiera. Txapelketa honetan parte hartu nahi duen bikote bakoitzak 1000 PTA ordaindu beharko ditu. Iragarri diren hiru sariak, ondorengo hauek: bikote irabazlearentzat 15.000 PTA, bigarrenarentzat 10.000 eta hirugarren postua lortzen dutenentzat 5.000 PTA.



## Hitzaldiak

### • "Analisi bioenergetikoa"

Otsailaren 6a, arratsaldeko 4etatik aurrera AED elkartean "Analisi bioenergetikoa"ri buruz hitz egingo du Maite Zumalde, psikologa eta analistika bionergetikoan espezialduak. Hitzaldia interesgarria izan daiteke, arnasa, ahotsa, energia eta mugimenduaren bidez gorputza hobeto ezagutu nahi dutenentzat. Ekin emakume taldeak antolatuta du.



“.....  
 Arrasateko Casa del Pueblo-a hamargarren aldiz eraso zuten hasten dagoen urte honetako urtarrilaren 18ko goizaldean. (...) Bapateko zakarkeria ekintza ez ezik, guztiz krudel eta alebosiaz betea. Bi aldiz ekintza makurra, beraz.

Lerro hauen irakurleek ez dute beharbada pentsatu ere egingo azken urteotan Arrasateko sozialistek jasan behar izan dituzten irainak nolakoak diren. Beharbada ez dute susmatu ere egingo erasoetatik babesteko kristal blindatuak jartzera behartzen dituen egoera. (...)


Bukatzeko, “Hori Lola da, ez da Nekane” bezalako lorak esanez gure herriko zerrendaburua mespresatuz diharduten arrasatearrei gogora arazi nahi diet badutela erantzukizunik salatzen dudan eskintza horretan.(...) Jakin nahi nituzke (zalantzarik ez) Arrasate-Mondragoneko Casa del Puebloren aurka sopleteak eskuan hartuta eraso zuten ‘aingerrutxoen’ izena eta deiturak”.

(Maite Pagazaurtundua Ruizek Diario Vascoko gutunetan 1992-1-22)

“.....  
 Arrasate Press eta Berrigara bezalakoak oso medio positiboak dira. Horrelako ekimenei esker informazio lokala dibertsifikatu egin da. Euskararen alde egiten duten lana izugarria da gainera. Hala ere, aldaketa planteatu beharreko unera iritsi direla uste dut. Bestela aspergarri egin daiteke. Orain hiru urte irakurleari Arrasate Press batek eskuartean orduerdi irauten bazion, orain gutxiago irauten diola uste dut. Beharbada informazioaren planteamentua aldatu beharko lukete, albiste asko oso erreta iristen bait dira. Formula berriak aurkitu behar dira, baina badakit dagoeneko zentzu horretan lanean ari direna”.

(Jon Anduezak El Correo Español egunkarian. 1992-1-27)

Zer esan dezakezu espioitza industrialaren inguruan azkenaldian esan direnetaz?



Espioitza industrialari buruz prentsan esan den gauza asko nahiko fikziozkoak da, eta FAGORetik esan dezakegun bakarra, puntu horretara iristea ebiltatzeko neurriak hartzen ditugula. Normalean, diru asko tartean denean izan ezik eta garrantzi handiko proiektuen kasuan salbu, ez da halako gairik auzitara eramaten, ez da gomendagarria tramite horietan sartzea, asko kostatzen delako, eta denbora aldetik ere desgaste handia dakarrelako. Argitu beharra dago produktu bat jabetzarekin babestu aurretik ezin dela espioitzaz hitzegi. Fasean zehar informazioa filtratzen bada, orduan bai. Kasu horretan, kopiatu duen enpresarekin hitzegi eta akordiora iristea komeni izaten da, trukean zerbait eskatuz eta denek.

Gai hauen garrantziaz jabetzeko, esan beharra dago FAGOR taldeak 3000 milioi inbertitzen dela urtean I+Dn, salmenten %3,5 inguru urtean eta batzbestek 75 jabetza erregistro egiten dela. Inbertsio horiekin, normala da ematen zaion babesa ematea ikertu den edozein produktu edo prozesuri. Patentea norberarentzat hartu eta aldeberean inongo patenteren esparruan ez sartzeko, konpetentziaren teknika egoera ezagutzeko, datu base batzutura jotzen da, harturik dagoen esparru zein den eta hartzeko zer dagoen jakiteko. Bukatzeko, gai batek patentagarri izateko hiru baldintza bete behar dituela gogora arazi beharra dago: mundu mailako berrikuntza izan behar du, asmakizun maila ona eta industriako aplikagarritasuna izatea.

JESUS SIERRA,  
 FAGOR TALDEKO JABETZA INDUSTRIALAREN DEPARTAMENTUKO  
 ARDURADUNA.

**K**abia altzariak  
 Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

**BIONA**  
  
 Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

**MUSAKOLA  
 OSTATUA**  
 Taberna  
 Jatetxea  
 Bazkariak  
 Bodak  
 Banketeak  
 Gelak  
 Gipuzkoako Etorbidea z/g  
 Tfnoa: 79 20 50



## Antzuola

### • Amnistiaren aldeko Batzordearen batzarra

Larunbat honetan, herriko zinematokian Antzuolako Amnistiaren aldeko Batzordearen batzarra egingo da arratsaldeko 7etatik aurrera. Erabiliko diren gaiak garrantzitsuak izango direnez ahalik eta jende gehienari agertzea eskatu nahi zaio.

### • Bertsolaritza

Bertso-giro aparta bizi da aspaldi honetan Antzuolan. Gaeuz tabernaz taberna ibiltzen diren sasi-bertsolariez eta antolatu den bertso-paper lehiaketaz gain, umeez besogintza zer den ikasi dezaten hitzaldiak ere izaten dira. Oraingoan, Jon Maia eta Aitor Sarasua izango dira irakasle gisa hurbilduko zaizkienak.



## Aretxabaleta

### • Kepa Urria komisaldegitik ospitalera

Beste hamabost lagunekin batera, Kepa Urria atxabaltarra atxilotu zuen poliziak joan den asteazkenean. Atxabaletarri, poliziak ETako kide liberatua eta Bizkaia komandoko partaide izatea leporatzen dio. Jakin izan denez, Kepa Urria, Salveko komisaldegitik pasa ondoren, Basurtoko Ospitalean ingresatu behar izan zutenatxiloketa orduan, bihotzeko arazoak izan dituelako.

• **Gipuzkoako itzulia egiten ari dira Murruxio Mendizale Elkarteko kideak.** Itzuli horren barruan, igandean Arano-Aritxulegi etapa burutuko da, itzuliko seigarren etapa hain zuzen. Irteera, goizeko 8etan eta buelta, berriz, arratsaldez.

• **Aretxagazeta aldizkaria** aurrera atera nahiean, otsailaren 15ean *Aretxagazeta* Elkartea eratuko da. Elkarteko bazkide izan nahi duen bakoitzak, 1.000 PTako kuota ordainduko du urtean eta horretarako 12a baino lehen herriko hainbat tokitan utzi ditzakete etxeetara bidalitako txartelak.

## Bergara

### • Antzerki-aretoa

Garai batean Irala antzoki handia itxi eta gero, Novedades zinema-tokia besterik ez zitzaien gelditu bergararrei noiz behinka antolatzen ziren antzerki-saioak ikusteko. Udalaren ustez, hori ez da nahikoa eta orain Zabaloitegi dorrearen azpiko aretoa egokituko da antzerki-areto bihurtu asmoz. Hala ere, areto berriak ez dirudi Bergarak izan dezakeen ikuslegoari erantzun diezaiokienik, 175 toki izango ditu bakarrik eta. Baliteke martxoaren 8rako inauguratu ahal izatea.

### • Zarama eta Danba

Iritsi zaie Bergarako ikasleei urteroko jaia. Astean, Santo Tomas pasatu da eta gaur San Juan Bosco eguna izanik, ospakizun bateratuak dituzte Lanbide Eskola eta Institutuko ikasleek. Ospakizunen artean, aipagarriena gaueko hamar t'erdietan *Zarama* eta *Danba* taldeek frontoian eskainiko duten kontzertua.

# Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46  
ARRASATE



**□ Obrak Udaletxean**

Udaletxearen eraikuntza berria da eta berogailu sistema ederra dauka, baina hala ere hezetasunak bereak egin ditu eta orain berriz obrak egin beharra dago. Dirudienez, Udaletzeko erdiko eskailerapean hezetasun handia dago eta horri aurre egiteko zulaketa-lanak egitea erabaki dute. Zulaketa Sokoa enpresak egingo du, 666.000 PTA gatik.

**□ Gobernu Batzordeko erabakiak**

Otsailaren 4a, Santa Ageda eguna dela eta, joan den asteleheneko Gobernu Batzordeak Santa Ageda Koruei 45.000 PTAko dirulaguntza ematea erabaki zuen. Horretaz gain, Iturripeko Kiroldegiaren eta inguruetakoko kirol esparruen erabilpena finkatzeko, Eskola Politeknikoa eta Udalaren artean hitzarmena sinatzea erabaki zen. Eskola Politeknikoko ikasleek Musakolako kiroldegira eraman eta ekartzearen PESAri 256.000 PTA ordaintzea ere erabaki zen. Azkenik, otsailaren 15ean aurtengo Zuhaitz Eguna burutzeko pentsatu zen.

**□ Udal plenoa**

Gaur, arratsaldeko 7etatik aurrera hileroko Udalaren osoko bilkura burutuko da. Gaiertan artean, garrantzitsuenak ondorengo hauek izan daitezke: Idazkaria eta diruzainaren lanpostuak, Bake-epailearen izendapena, Uherkapeko arazoa konpontzeko akordioaren proposamena eta Azokako araudi berraren onarpena.

**ONGI ETORRIA JAIOBERRIEI**

- Markel Hernandez Gonzalez, urtarrilaren 16an.
- Maria Sanchez Sanchez, 19an.
- Leire Herrasti Isasa, 20an.
- Igor Hernandez Gonzalez, 22an.
- Olaia Zabalo Manrique de Lara, 25ean.
- Joseba Garcia Herrasti, 26an.

# Txandaka

## EUTANASIA AZTERTUZ

**E**utanasia zer den eta eutanasia zer ez den jakitea komeni zaigu.

Mina kentzeko egiten diren beharrezko ahaleginak, nahiz eta horrela, bigarren ondorio bezala, gaixoaren heriotza aurreratu, hori ez da eutanasia.


Bizitza luzatzeko bitarteko bereziei ezezkoa ematea ez da eutanasia. Gaixo batek ezezkoa eman diezaioke tratamendu konkretu bati, ebakuntza edo operazio bati adibidez, ondorioz hil egingo dela jakinez, baina hori ere ez da eutanasia.

Bueltarik ez duen koma sakon sakonean sarturik dagoen gaixo baten beste gaixotasun sekundario batzuk ez tratatzea ere ez da eutanasia.

Zer da, beraz, eutanasia?

Gaixo dagoen bati zeozer egitea edo normala eta beharrezkoa dena ez egitea zuzenki gaixo hori hiltzeko, horrela sufritu ez dezan. Horixe da eutanasia.

Errespetu handia diot inoren bizitzari. Ez du inork inor hiltzeko eskubiderik, zaharra delako edo ahulduta dagoelako edo mundu ho-



Jose Mari Mendizabal (\*)

netarako balio ez delako edo sufritzen ari delako.

Kristauok ez dugu onartzen eutanasia aktiboa, kristauok zaindu egiten ditugu gaixoak, ahal dugun neurrian minak eta oinazeak kendu egiten dizkiegu, eta bizitzaren, heriotzaren eta oinazearen zentzua bilatzen laguntzen diegu gaixoei. Duintasunez beteriko heriotza eskatzen dugu, ez heriotz isolatua eta aseptikoa.

Bestalde, ez dut uste ona denik eutanasia onartzea. Hamaikatxo aitzaki bilatuko genuke gure zahar eta gaixoei pasaporte emateko, eutanasia onartua balego. Gaixoak zaintzea molestia izaten da, luze joaten bait dira gaixotasunak; ondare edo herentzia jasotzeko ere presa gerta daiteke, eta gaixoentzat etorriko lirakeen ondorio txarrak onak baino handiagoak izango lirakeela uste dut, eutanasia aktiboa onartua balego.

Beraz, bada, eutanasia pasiboak, eutanasia ez direnak, gaixoa zaintzea esan nahi dute. Eutanasia aktiboa gaixoa zuzenki hiltzea da, eta ni ez naiz inoren bizitzaren jabe.

(\*) **ABADEA**

### BURGALES JATETXEA

**Jaki goxoak eta giro atsegina**


**Durana, 12 ARETXABALETA**

### ENARA OSAGARRIAK

Maalako Errabala, 21  
Tfnoa: 79 62 32  
20500 Arrasate







Ikastaroa gurasoei zuzendutakoa da.

## Usteak uste

Zorionez neure gaixota-  
sunagatik ez baina azken egunetan sarritan agertu behar izan dut Eskualde Ospitalera. Oraingoan ez naiz sartuko eritetxe berria egitea premiazkoa ote den epaitzera, honetaz luze hitzegin eta idatzi bait da eta nere ustez beharra behin baino gehiagotan frogatua geratu delako, baina betiko "Centro Asistencial"-a obratan daukagunez lerro hauek bertan ostatuko direnak biziko duten egoera salatzen aprobeztatu-tuko ditut. Eri-biltegi honetako Harrera ezin aurkitu, hirugarren pisuko ezker aldean komunik ez, hango hautsa, langileen danbatekoak... Hau desastrea! X izpiez ez naiz mintzatuko egin beharreko osteratxo aski ezaguna bait da.

Kontua da baldintza hauekin nekez osatuko direla gaixo gizarajoak, osatu beharrean gaitzik hartzen ez badute behintzat.

Badakit kexa hau ez dela inora joango edo tamalez alperrik jarraituko dugula Ospitaleko egoeraz idatzi eta hitzegiten, hala ere, eta azken galdu beharrekoa itxaropena izanik, etorriko al da noizbait sasoi gaizto eraldatzeko.

Bitartean ez gaixotu eta ahal izanez gero, biltegian ez ostatu hartu.

JON GARAY

## Osasun Heziketa ikastaroa


### Drogomenpektasuneko zerbitzuak antolatuta

Arrasateko Drogomenpektasunen Udal Prebentzio-Zerbitzuak, eta eskoletako Guraso-Elkarte eta Zuzendaritza Batzordeek, gurasoei zuzendutako Osasun Heziketa, eta Drogomenpektasunen Prebentziorako ikastaroa antolatu dute. Ikastaro honen helburua, familia barruan sortzen diren arazoak buruzko ezagupena lortzean dago, arazoak aurre egiterakoan jarrera positiboagoz erantzun ahal izateko; seme-alabekin izan diren eskola eta familia harremanetan, behin baino gehiagotan jasan behar izaten den desorientazioa egoera eta zentrazioak gaintzeko; eta osasun heziketa, drogomenpektasunaren prebentziorako gurasoek izan behar duten protagonismoa eta garrantzia sustatzea.

Ikastarorako 144 gurasok eman dute izena, %40a gizonezkoak eta zazpi taldetan banatuta daude. Astelehenetik ostiralera izango den ikastaroan bi talde

daude eta asteroko ikastaroan bost; astean behingo talde hauetatik bat euskarazkoa da. Ikastaroak sei saio izango ditu eta *Izadia* Ikerketa Sozialen Kabineteak eta Prebentziorako Zerbitzuak emango dituzte.

Bestalde, Arrasaten hamalau pertsona ari dira rehabilitazio prozesuan, horietatik bederatzi *Gizakia Helburu* edo *Proyecto Hombre*-n ari dira hiru Las Nieves Eritetxeko Drogomenpektasun Zerbitzuan, eta azkenik, bi beste zerbitzuetan daude. Udaletxeak diru laguntza emateko orduan, Osakidetza Kontzertatuak dauden zerbitzuetara jotzen duten drogazaleei bakarrik ematen zaie laguntza. Laguntza honetan garraioa eta dietak sartzen dira. Hamalau pertsona horietatik hamarrek diru laguntza jasotzen dute, bik ezin dute jaso Osakidetza kontzertatuta ez dauden zentruetan daudelako, eta beste bik oraindik gestionatzeke dagoelako.



# EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



**❑ Institutukoko zozketa**

Institutukoko hirugarren mailako ikasleek ikasbidaia egiteko zozketa antolatu zuten, dirua atera asmoz, noski. Zozketan ateratako zenbakiak, honako hauek: 5.161a 20.000 PTako sariarekin, 3.645a 10.000 PTarekin sari-tua eta 1.262a 5.000 PTakoarekin.

**❑ Bi atxilotu manifestazioaren ondoren**


Joan den astearten burututako manifestaldiaren ondoren, Ertzantzak bi gazte atxilotu zituen, kalean istiluak eragitearen akusaziopean. Ertzaindegian ordu batzuk pasatu ondoren askatu egin zituzten bi gazteak, baina epailearen aurretik pasa beharko dute.

**❑ Gelma indartze bidean**

Gelmak etorkizunari ahalik eta ondoen erantzun nahiko dio. Inbertsoen garrantziaz jabeturik, Azpeitiko Marcial Ucin enpresa erostea aztertzen dabil.

**❑ Santa Ageda Koruak**

Iazko moduan, aurten ere Santa Ageda koruek diru asko aterako dute. Zer egin ote zuten iaz ateratakoarekin? 140.000 PTA gaixoei laguntzeko, 420.000 PTA langabezian zeudenei laguntzeko, 480.000 PTA banandu diren familientzat eta 160.000 PTA eskaleei eta antzerakoei eman dizkiete. Guztira, 2.000.000 PTA izan ziren, iaz jaso eta gero banatu zirenak. Ea bada, aurten gehiago diren!



Iaz beste ikastaro izango dira aurten ere.

## Iaz 10.000 bazkide Kiroldegian

### Gehien egiten den kirola igeriketa da

Aurten kiroldegiko bazkide izateko epea zabalik badago ere, oraindik ezinezkoa da daturik ematea. Hala ere, aipa daiteke nobedaderik ez direla izango ikastaroak antolatzeko orduan, lekua mugatua delako. Dena dela, iazko datuak hor daude eta interesgarriak izan daitezke. Iaz hamar mila pertsona inguru izan ziren Musakolako kiroldegiko bazkide; baina jende gehienak uda partean eman zuen izena, kirol nagusia igeriketa delako; beraz, neguan jende gutxiagok erabili zuen kiroldegia.

Antolatzen diren ekintza ezberdinetan parte hartu zuen jende kopurua honako hau izan zen: futboleak 100 pertsona, frontoian bezala, mantenimendu gimnasia 50 jubilatuta eta beste 80 pertsona, judoan 50 gaztetxo eta 20 nagusi, 60 neska gimnasia erritmikoan, squash-ean 40 eta tenisean 20. Horretaz gain, talde eta elkarte ezberdinetatik zetorren jendea kontatu behar da, talde ugari. Dena dela, ezinezko da zenbat etortzen ziren jakitea, horiek ez bait zuten bazkide txartelik egin.

# %50

## Txandalak, txamarrak



**LORAMENDI  
KIROLAK**



**PAZI-OLA** SA  
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

**ARRASATE  
PRESS**



**77 05 65**





Iturbide Egoitzan egin beharreko obrek 44 milioitako aurrekontua dute

## Iturbide Egoitza berrituko da

*Egoitzan sartzeko lau pertsona bakarrik daude zain*

Iturbide Egoitzan, gutxi gorabehera hemendik hilabetera eta 44 milioitako aurrekontuarekin, berritze lanei ekingo zaie. Aurrekontuaren ehuneko 75a Diputazioaren kontu joango da eta gaitzako Udalaren kontu. Berritze lan hauek Gipuzkoako Aldundiak zaharren egoitzetarako ezarri berri duen araudiaren ondorio zuzena dira, eta funtsean bainu geriatrikoak jartzeko burutuko dira. Bainu geriatriko horiek, adinekoentzat eta bakarrik moldatzen ez diren gainerakoentzat izaten dira; beraz,

berritzeko baino, egokitzeko lanak izango lirarteke.

Egoitzak orain dituen 98 oheak beteta daude eta libratu ahala konponduko dituzte, hortaz, oraingoz ez dute jende berririk hartuko Egoitzan. Ondorioz, Iturbiden sartzeko zain dauden lau pertsonak oraindik itxaron egin behar dute lanak bukatu arte. Han bizi direnak, berriz, obra berriak jasan behar dute, orain gutxi suteen aurkako neurriak hartzeko lanak jasan dituzten moduan.

## Hamahiru gazteren epaiketa atzeratu

Fiskalak urte bete eta egun bateko gartzela zigorra eskatu zuen bailarako hamahiru gazterentzako, Arrasaten 1990ko ekainaren 25ean istiluak sortu eta kale ondasunak kaltetzearren. Hamahiru horietatik, hamar Arrasatearrak dira. Frogarik garrantzitsuena bideo bat izan zen, gertaeren egunean ertzainak hartutakoa. Manifestazioan parte hartu zutela onartu zuten akusatuek baina ez istiluetan eta, bik izan ezik ez zuten euren burua bideoan ezagutu. Bestalde, lekuko batzuk falta zirelako epaileak atzeratu egin zuen otsailaren 25era arte, eta ordurako kalteak zenbatekoak izan ziren kalkulatzeko eskatu zion Arrasateko Udalari eta etxea eraikitzen ari zen enpresari.



## HITZALDI INFORMATIBOA

### “Analisi bioenergetikoa”

Zeure gorputza pixka bat gehiago ezagutu nahi baduzu:

- Arnasarekin
- Ahotsarekin
- Energiarekin
- Mugimenduarekin


Emalea: Maite Zumalde (Psikologoa eta analista bioenergetikoa)

Tokia: AEDn

Eguna: Otsailak 6, arratsaldeko 4etan

AEDko EKIN Emakume Taldea





—▲  
**Semaforo berria** jarri dute **Aldaiko bideguru-tzean**. Lehen ere, toki berean bazegoen beste semaforo bat, baina aspaldi desagertu zen hura. Egia esan, beharra bazegoen, ordu jakin batzutan Gipuzkoa Etorbidean kotxe-ilada handiak sortzen dira eta. Dirudienez, saihezbideak ez du uste adinako eraginik herri barruko trafikoan.



—▲  
Bost **japoniarren bisita** izan genuen Arrasate Pressen eta, òhi dutenez, kamara eta guzti etorri ziren kamara profesionalaz, hemengo bideoren bat egin asmoz, antza. Harrigarriena, batek, Hideo Isuzukak, euskaraz hitzegiten zuela Japonen bertan ikasita. Gutxi egin arren, zerbait hitzegin eta ulertzeko gai zen.



—▲  
Joan zen asteburuan **Gaztetxean** Alberto Encinasen alde antolatutako jaialdia eta beste ekintza guztiak sekulako arrakasta izan zuten. *Soziedad Alkoholika*, argazkian azaltzen den taldeak hain zuzen ere, eman zuen kontzertua ikusi eta jende asko gerturatu zen entzutera.

**ESTETIKA-ZENTRUA**  
lurrundegia, opariak, jostailuak  
**Z a r r a o a**  
Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

**VE ECUADOR**  
Kontzezifio, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**BAKAILO ETXEA**  
Makailoa eta beroni buruzko produktuak  
Makailoa, kroketak eta piper kazolak prestatzen ditugu  
Mondragones 7, (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07

**SAMEGO GARBIKETAK**  
Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39





Izen  
**PROPIOAK**

◀ **Bixente Barandiaran** 80 urteko arrasatearrak Artesaurik onenari ematen zaion saria jaso du gaur Merkataritza Ganbaran, Donostian egin den sari banaketan. Gipuzkoako beste hiru lagunekin batera bera izan da aukeratua, errementari lanetan egiten dituenengatik. Garaikurra, 50.000 pezeta eta urtetako lana saritua ikustearen poza jaso ditu. Zorionak!

● **Bixente Azkarate**, Santamainako Toki Argi jubilatuen etxeko presidente izendatu dute berriro. Bixentek 58 urte dauzka eta Toki Argi inauguratu zenetik, orain hiru urte, bertako presidente izan da. Orain, beste bi urteterako eman diote kargua. Jubilatu aurretik Cerrajeran lan egin zuen urte askoan.


Urtarrilaren 3an, Mondragon Operatiba Gorporazioak dibisio berrien lehendakari-ordeen hautaketa egin zen. Hautatuak honako hauek izan ziren: Talde Finantzieroan, **Juan M. Otaegi**; Banaketa taldean, **Antonio Cancelo**; Industri taldean, **Anton Etxeberria** lehen talde ondasunean, **Jose Luis Olaso** bigarren talde ondasunean, Automozioena **Rafael Leturia**, Elektragailuena **Jose M. Aldekoa**, Industri eta Zerbitzuena **Iñaki Otaño**, Eraikuntzan **Jesus Maiztegi** eta Etxekoa **Jesus Catania**.

**Agurtzane Urizarrek,**

El Salvadorren urte asko pasatutako arrasatearrak joan den asteartean hitzaldia eman zuen Monterronen. Hitzaldia, interesgarria izan zen, El Salvadorreko bake-akordioari buruz hitz egin zuen eta; hala ere, ez zen jende gehiegi hurbildu Monterronera, hogeiren bat lagun guztira. ▶



**SEGURTASUN-INJINERUTZA**




Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
Legutianoko alea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



**GIZON ETA  
EMAKUMEAREN  
MODA**

Otalora 7/g  
Tfnoa: 79 20 50  
ARRASATE





ETB 1ean astelehen gauean eta larunbat eguerdian errepikatuta botatzen duten *Bi eta bat* telesaileko atal batzuetan **Jon Belar** arrasatearra azaltzen da. Ikusi nahi duten guztiek, beraz, badakite astelehen eta larunbatean dutela aukera.



Takolo inguruan orain arte **zaborrak** botatzen ziren, *Zaborrik ez bota* esaten duen kartela jarri dute, baina hala ere, jendeak berdin berdin jarraitzen du. Kartelean aipatzen den moduan, zaborrak Garagartza eta Markulete Poligonoaren artean hartarako jarritako lekuak bota beharko direla.



◀ **Zigarrolako** etxe zaharrenari, **Txotxuene** etxeari, iritsi zaio azken ordua. Urte askotan zutik iraun duen etxea, bihar bertan botako dute Construcciones Brues enpresako makinek. Arrazoa, bada, etxearen egoera kaxkarraz gain, berriak egin beharra.



## Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN  
SORKUNTZA  
LORAZAINTZAKO  
MANTENIMENDUA ORO HAR  
LANDARE-BIRSORKUNTZA  
HIDROEREINTZAZ

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)







# Kontuz gero!

Arerio bat atzean utzi eta normalean beste bat ateratzen zaizu aurrean. Ia astirik gabeko erabakia hartu behar da horrelakoetan, aurrera egin edo buelta eman baloia beste norbaiti emateko. Txarrena, lehen atzean utzitakoak oraindik inguruan dabiltzanean.



## Eskiña taberna

Olarte, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 0220

## LIZARRA taberna

Leintzibar kalea, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 72 35

## URRIN TABERNA

KAZOLATAN  
ESPEZIALISTAK

Uribarri Etorbidea, 22 Tfnoa: 79 95 24  
ARRASATE





## A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Akaitegi Express	12	8	3	1	111	35	19
Fosforos	12	8	2	2	66	31	18
Los Heredia	11	8	2	1	69	34	18
Zulu's	11	8	0	3	48	33	16
Adobe	12	6	3	3	41	37	15
G. P. Noski	12	6	3	3	57	26	15
Kriskibalda	11	6	2	3	57	32	14
Jubilatus	12	5	3	4	51	60	13
Koxkas	12	4	3	5	47	63	11
A. Kristaldegia	11	4	2	5	31	33	11
S. I. Ugarte	12	4	2	6	34	46	10
Uglys	11	3	0	8	29	41	6
Expert	11	1	3	7	31	71	5
B. D. L.	12	1	1	10	23	85	3
T. San Josepe	12	0	1	11	30	98	1
Los Manchas	—	—	—	—	—	—	—
Neanthertal's	—	—	—	—	—	—	—
Tronkoteak	—	—	—	—	—	—	—
<b>Total</b>	<b>174</b>	<b>72</b>	<b>30</b>	<b>72</b>	<b>725</b>	<b>725</b>	<b>174</b>

## B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Fasprint	14	10	3	1	71	25	23
La Banda	12	10	1	1	59	21	21
Los Motz	12	10	0	2	34	24	20
Potroak Lorategi	13	7	3	3	59	34	17
Navarros	13	8	1	4	49	28	17
Jo ta akabau	12	8	1	3	47	27	17
Danok Lagun	12	7	2	3	45	25	16
Sibilius Rover	12	5	4	3	29	28	14
Anbotoste K. T.	12	5	1	6	38	49	11
Ganbelas	13	4	1	8	32	42	9
Gau azkenak	12	4	1	7	34	44	9
Txintxes Osorik	12	4	1	7	30	42	9
Bukanak	12	3	1	8	34	59	7
Inter de Alima.	12	2	1	9	26	71	5
Maria del Monte	12	1	0	11	22	75	2
Oleee!	13	0	1	12	27	92	1
MKA	—	—	—	—	—	—	—
Totxus	—	—	—	—	—	—	—
<b>Total</b>	<b>198</b>	<b>88</b>	<b>22</b>	<b>88</b>	<b>686</b>	<b>686</b>	<b>198</b>

## C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Adelaida Haizea	14	13	0	1	74	15	26
Argi Ibili Mapfre	14	11	1	2	101	40	23
Gnu Seg. Bilbao	14	11	1	2	51	14	23
AEK	14	9	3	2	51	36	21
Diego Antonio	14	9	2	3	56	38	20
Bar Kajoi	14	10	0	4	79	28	20
New Laso Arregi	14	8	2	4	47	33	18
Txokeros	14	6	2	6	46	36	14
Aizpun bila	14	7	0	7	55	66	14
ATB	14	5	2	7	53	62	12
Aurrera Bolie!	14	4	3	7	42	54	11
Sokoakoak	14	4	2	8	45	59	10
Alaves	14	4	1	9	29	55	9
Arrasate Press	14	4	1	9	30	51	9
T. Monterrey	14	2	3	9	38	79	7
Shaktale	14	1	4	9	34	69	6
Bayer de Leniz	14	2	1	11	28	80	5
Whiskeria Linde	13	2	0	12	44	78	4
<b>Total</b>	<b>252</b>	<b>112</b>	<b>28</b>	<b>112</b>	<b>903</b>	<b>903</b>	<b>252</b>

## D taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Artzankos Udal.	13	11	0	2	60	26	22
A. Kirolak	13	10	1	2	52	22	21
V. C. Daglas	12	8	2	2	66	22	18
Bar Artano	13	8	1	4	53	39	17
Notxingan Flo.	12	7	1	4	41	32	15
Pepelus	12	7	1	4	43	28	15
Bizkorrak	12	7	1	4	42	29	15
Camerun's	12	6	2	4	47	37	14
Arrasate Comer.	12	6	1	5	26	33	13
Ghana	13	6	1	6	46	39	13
Hirei	12	6	1	5	40	28	13
Nagixak	12	3	2	7	28	48	8
Kakajauri	13	3	1	8	27	49	7
Ezkinako Hontza	12	2	2	8	28	59	6
Sukumurus	13	0	1	12	19	59	1
Atxanta ke te...	13	0	0	13	17	85	0
Balaika	—	—	—	—	—	—	—
Resakas	—	—	—	—	—	—	—
<b>Total</b>	<b>198</b>	<b>90</b>	<b>18</b>	<b>90</b>	<b>635</b>	<b>635</b>	<b>198</b>

# JMA JMA





Zaldibarko frontoiak badu berezitasunik futbitoan jolasteko, hormarena hain zuzen ere. Asko dira hormarekin ederki konpontzen direnak, taldekideekin baino hobeto. Zaldibartik kanpo jokatzen denean alde nabaria izaten da, Iturripen ezin da hormarekin jolastu eta.

## EMAITZAK

### A taldea

Los Heredia 3 ..... Akaitegi Expres 3  
 Jubilatuz 1 ..... G. P. Nosk 13  
 Uglys 3 ..... Koxkas 6  
 Expert 3 ..... Kriskibalda 12  
 Adobe 0 ..... Sum. Ind. Ugarte 1  
 T. San Josepe 4 ..... B. D. L. 4

### B taldea


Los Motz 2 ..... Ganbelas 1  
 Petroak Lorategi 4 ..... Maria del Monte 0  
 Anbotoste K. T. 1 ..... Danok Lagun 7  
 Gau Azkenak 6 ..... Bukanak 3  
 La Banda 4 ..... Navarros 1  
 Oleel 0 ..... Fasprint 11  
 Inter de Alimafas 3 ..... Jo ta akabau 7

### C taldea

Diego Antonio 5 ..... Alaves 4  
 Aizpun Bila 1 ..... Gnu. Seg. Bilbao 9  
 New Laso Arregi 6 ..... Monterrey taberna 3  
 Shaktale 2 ..... Sokoakoak 4  
 Whiskeria Linde 12 ..... ATB 4  
 Arrasate Press 5 ..... Bayer de Lenitz 3  
 Txokeros 1 ..... Bar Kajoi 3  
 Adelaida 6 ..... AEK 2  
 Aurrera Bolie! 2 ..... Argi Ibilii Mapre 18

### D taldea


Nagixak 4 ..... Ezkinako hontzak 4  
 Pepelus 2 ..... Ghana 2  
 Artzankos Udalaiz 4 ..... Arrasate Kirolak 1  
 Bizkorak 5 ..... Sukumurus Anboto 1  
 Arrasate Comercial 1 ..... V. C. Daglas 9  
 Bar Artano 4 ..... Camerun's Trikiti 1  
 Atxanta ke te merece 1 ..... Hirei 8



## LASO ARREGI argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3  
**ARRASATE**  
 Tfnoa: 79 12 75

## Gure-Leku taberna




Zarugalde  
 Arrasate  
 79 20 29

### Auto-soinua

Karburazioa  
 Autoarentzako osagarriak

Eskiak eramateko  
 parrilak, edozein  
 ibilgailurentzakoak



Urbarri Etorbidea, 16 ARRASATE 79 73 58

## AGUSTIN





## Txutak

Aukerak aprobetxatzeko ordua

Gol ugari eta sorpresa gutxi gertatu zen joan den asteko ihardunaldian: *Krskibaldak* 12 gol, *Fasprint*-ek 11, *Whiskeria Lindek* 12, *Argi Ibili Mapfrek* 18, *Gnu Seguros Bilbaok* 9, *V. C. Daglasek* 9 eta *Hireik* 8. Ez dira gutxi, ez!

Emaitzak alde batera, sailkapenei begirada eman eta gero sailkatzeko aukera handia duten taldeen zerrenda: *Akaitegi Express, Fosforos, Los Heredia, Zulu's, Adobe, G. P. Noski, Krskibalda, Jubilatuz, Fasprint, La Banda, Los Motz, Lorategi-Potroak, Navarros, Jo ta akabau, Danok Lagun, Adelaida Haizea, Argi Ibili Mapfre, Gnu Seg. Bilbao, AEK, Diego Antonio,*

*Bar Kajoi, New Laso Arregi, Artzankos Udalaitez, Arrasate Kirolak, V. C. Daglas, Bar Artano, Notxingan Flores, Pepelus, Bizkorrak, Camerun's Trikiti, Arrasate Comercial, Ghana, eta Hirei.*

Beharbada, aipatutakoek baino gehiagok izan dezakete aukera sailkapena lortzeko. Dena dela, askorentzat dagoeneko berandu da eta beste askorentzat berandu izan daiteke. Hogeitamahiru talde hogeitalau postutarako hiru partidu besterik gelditzen ez direnean. Argi dagoenez, hamahiru talde kanpoan geldituko dira, bateren batzuk datorren astean bertan. Horrela, partidu interesgarrienak hauek izan daitezke: *Los Heredia - Krskibalda, G. P. Noski - A. Kristaldegia, Adobe - Fosforos, Los Motz - Jo ta akabau, Danok Lagun - Ganbelas, Whiskeria Linde - New Laso Arregi, Notxingan Flores - Bizkorrak, eta Pepelus - V. C. Daglas.*

### DATORREN ASTEAN

#### A taldea

Talleres San Josepe .....	Sum. Ind. Ugarte
Zulu's .....	Uglys
Expert .....	Jubilatus
Los Heredia .....	Krskibalda
G. P. Noski .....	Arrasate Kristaldegia
Adobe .....	Fosforos

#### B taldea

Los Motz .....	Jo ta akabau
Ineter de Alimarias .....	Sibiluz Rover
Navarros .....	Gau azkenak
Txitxes Osonik .....	Anbotoste K. T.
Maria del Monte .....	Oleee!!!
Bukanak .....	La Banda
Danok Lagun .....	Ganbelas

#### C taldea

Diego Antonio .....	Argi ibili Mapfre
Aurrera bolie .....	Bar Kajoi
Bayer de Lenitz .....	Shaktale
Whiskeria Linde .....	New Laso Arregi
Gnu Seg. Bilbao .....	Adelaida
Aizpun bila .....	ATB
Sokoakoak .....	Arrasate Press
Montterrey Taberna .....	Alaves
Txokeros .....	AEK


#### D taldea

Nagixak .....	Hirei
Atxanta ke te merces .....	Camerun's Trikiti
Notxingan florest .....	Bizkorrak
Arrasate Comercial .....	Artzankos Udalaitez
Pepelus .....	V. C. Daglas
Arrasate Kirolak .....	Ezkinako Ontzak
Bar Artano .....	Kakajauri

# RUMBA

taberna

Iturriotz Kalea  
ARRASATE



## EGIDO

Automobilarentzako  
ordezko piezak

Legarre Pabilioia.  
ARRASATE Tfnoa: 79 62 11

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



# ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41 ARRASATE

● Zure autoaren injekzioarekin arazoak dituzu? Hala bada, jakizu gasolinezko injekzio mota guztietan espezialista den zerbitzua dela gurea, merkaturuko makinarik sofistikatuenaz.



**4** 8 urte, fraile frantziskotarra, filosofia eta teologia ikasketak egin zituen Seminariokoekin batera. Musikazale, musika klasiko aditu gisa ezagutzen dugu askok, eta metereologoa gisa gehienok bere ahotsa behintzat. Euskadi Irratia erderazkoa eta euskarazkoa eta Segura Irratia dira bere pronostikoa ekartzen dizkigutenak.

— Hemengo klima aldaketaz eta, egia da Euskadi Tropikalaren kontua?

— Ezin daiteke inola ere egia izan, hasteko tropikala hitzak zeresan nahi duen izan behar da kontutan, eta oso bustia denez, euri mordoan egin behar du eta hemen hori esan zenean, euririk egiten ez zuelako zen. Bestalde, temperatura batazbestekoa ere oso altua izaten da, eta horretan ere nahastea dago. Klima aldaketari buruz, berri, ez dago esaterik, horri beti hari luze batean begiratu behar zaio urte askotan zehar. Hemen klima aldaketa izango litzateke, adibidez, mediterraneoan hotz egiten duela eta laranja ez balego eta Galizia eta Asturiasen emango balira. Hori orain lau-bost mende gertatu zen. Baina hori ez da gaur hemen gertatzen. Gertatzen da, adibidez, nola herri handietan pilaturik bizi garen, mikroklimak aldatu dira.

— Esaera zaharrek eguraldiari buruz ematen dituzten sententziak, zenbateraino dira egia?

— Konstatazio diren aldetik egia dira eta gure asaba zaharrek nola ez zuten teledista eta irratirik, obserbatu eta urteen poderioz euren jakituria esaera batzuetan bilduta zeukaten. Esaerek esan nahi dute gure baserri-

Pello Zabala

## Arantzazutik eguraldiaren berri



tarrei urtea normal joatea gustatzen zitzaiela. Alegia, neguan egin zezala negu eta udan uda. Adibidez, “abenduan edo urtarrilean tximelleta ikusi baino, hoba otsua ardi artean”. Horrek esan nahi du neguan egin dezala komeni dena, bestela gero beste dena nahasi etorri dela.

— Horrek badu zer ikusirik tenporekin. Berbalekua behintzat jartzen dute tenporek. Baina zer dira?

— Gaur egun saltsa handiena tenporak finkatzen

dago. Nik egin ditudan estudioetan behintzat, tenporak elizak jarritako denbora batzuk dira, eta laugarren giza-ditit markatuta daude. Gerora nahastu egin dira eta batzuk esaten dute badaudela beste batzuk ere. Nik, egia esan ez dakit beste horiek zer diren. Guzti horren inguruan ikerketa serio bat egin beharra dago, dauden datuekin eta urte luzetako emaitzak kontrastatuz.

— Harrien hezetasunari, behiak etzanda egoteari begi-

ratzen diote batzuk eguraldia iragartzerakoan. Naturak ematen du horrelako pizarrik?

— Naturak eta baita giza-seekek ere. Baina gaur egun baditugu erraztasunak hainbat datu jakiteko; adibidez bost kilometro gorago zer temperatura dagoen jakiteko eta hori ez zegoenean baserriarrak zapelaitzaren hega egiteko moduari begiratzen zion zer haize mota zebilen jakiteko. Eguraldi aldaketak eragin handia du animalietan, gizakietan. Animalia batzutan era bateko eragina du: adibidez ikusten baduzu txitxareak lurretik ateratzen badira, zerbait gertatzera doa eta gainera zozoa zizare asko jaten ari dela, batetik txitxareak ateratzeak kanbioa datorrela esan nahi duela eta bestetik aldaketagatik berak gehiago jan behar duela, eta bi edo hiru eguneko euriteak datozela. Baserrian egon denak baditu bere termometro txikiak, eta gaur guzti hori datuen bidez badakigu, baina nik ez ditut alde batera uzten.

— Eta pronostikoa beste zantzu horiekin bat ez bada-tor?

— Madrilkoa askotan errezero piska batekin hartu eta pittin bat korregitu egiten da. Baina pronostikoa ematea nahi ezta ere oso ofiziala denez, nik ezin nezake pronostikoari uko egin eta kontrakoa esan. Normalean bat egiten dut, orain arte ez digu konplikaziorik ekarri baina adibidez Britainia Handian pronostikatu ez duten gauza txar bat gertatzen bada, jui-ziora sartzen dituzte, eta ofizilatze aldera, Madriletik handik ematen digutena esaten dugu. “Pellok denetik esan eta asmatuko ez dik, bada?” esaten dute batzuk baina askotan gauzak konpontzen ibili beharra dago.

“  
Gure baserriarren jakintza zaharra ez dut pronostikoetarako baztertzen



# Enpresari berriak, ekaitzaren ondoko barealdia

**Krisi latza bizitzen ari gara aspaldi honetan, amaierarik ikusten ez zaion zulo beltzean sartuta gabiltza. Langabezia eta behin-behineko kontratuak gauza arrunt bilakatu zaizkigu; lan finkoa dutenak ere, susmo txarrez beterik dabilta. Garai bateko ekimen enpresarialen ugaritasuna ahaztutako gauza da. Dena den, ekonomiaren itsaso beltzean, noiz behinka irlaren batzuk agertzen dira, enpresari gazteen ekimenez sortutakoak.**

## Bizimoduari buelta


**G**erardo Uribesalgo Eskola Politeknikotik irten eta gero, bere aitarekin batera hasi zen lanean, fundizioan. Denbora gutxian, nazka-nazka eginda zegoen, eguneroko makina aurreko lana ez zen beretzat aproposena. "Aspertuta nengo eta komentziuta bizimodu hura utzi beharra nuela. Dirurik galdu barik, zer jarri daiteke Arrasaten? galdetu nion neure buruari, eta negozio posible guztiak banan-banan aztertzen hasi nintzen. Azterketa horien ondorioz, hemen kristaldegia bakar bat zegoela konturatu nintzen eta posible izan zitekeela besteren bat jartzea. Orduan, Gasteizera joan eta bertako kristaldegiei buruz ikertzen hasi nintzen. Ondoren zatiketara simple bat egin nuen:

*Gasteizek hainbeste biztanle baditu eta kristaldegia kopuru hau badu, duen biztanle kopuruarekin beste bat izan dezake Arrasatek?"*

Aurreko eragiketa matematikoan baiezko borobila aterata zitzaion Gerardori. Gauzak horrela, Gasteizko kristaldegia batean lana eskatu

eta lanbidea ikasi zuen. Han urte bete pasatu eta segituan, bere kontu, Arrasate Kristaldegia zabaldu zuen. Orduan hogeitabat urte zituen, langile bat eta aurrera ateratzeko ilusioa; orain, berriz, ilusio hura egiaztatu egin da eta egunero, gutxienez, hamaika ordu sartzera behartzen duen negozioa dauka. "Gaur egun lau lagun gabiltza lanean eta egunero hamaika ordu sartuta ere, uste dut izan dezakegun lanaren %30ean gaudela, ez gara ezagunegiak eta. Hasieran, kristaldegia bera handiegi gelditzen zitzaigun eta orain handitu beharrean aurkitzen gara. Lan asko daukagu".

Kontatu den bezala kontatuta negozio bat irekitzeak gauza erraza dirudi, baina Gerardok dioenez, aurrera atera nahi duen edonork lan asko egin beharra dauka. "Ez da erraza asmatzea, produktu egokia aurkitu behar da eta norbere burua ezagutarazi egin behar. Gainera, gaur egun enpresek duten arazo larrienarekin topo egiten dugu askotan: ordaintzen ez dutenekin".




Gerardo Uribesalgok hiru urtetan bere kristaldegia aurrera ateratzea lortu du.



## Etxeko negoziotik abiatuta

**A**store izena, dagoneko famatua egiten ari da kirol-jantzigintzan. Esteban eta Edu Uribesalgok 1990ean ireki zuten enpresa. Anaia biak etxeko dendan egiten zuten lan, salmenta hutsak merkatu mugatua zuenez handitzea pentsatu zuten.

Aitari planteatu atzerritik bidaia egin eta kirol-produktuak urtero prezioz igozten direnetakoak zirela ikusi zuen. Hala ere, erabakia ez zen erraza, kirol-produktuak egiteko lantokia irekitzeak inbertsio handia eskatzen zuen eta. *"Inbertsioa ikaragarria izan zen, lantokia erosi, telak ebakitzeko makinak ekarri, diseinurako ordenagailuak... azken finean enpresa handia gara, 30 lagunek osatzen duguna. Dena dela, inbertsioak ez ziren*



Astoren hogeitamar laguneko lan-taldea bildu du Estebanek.

*lantokia jartzearekin konpontzen eta gero ere derri-gorrezkoa egin zitzaigun gure produktuak ezagutzaraztea, publizitatearen bitartez, noski.*

*Urte bete pasa da lantegia ireki genuenetik eta denbora horretan aurrerakada nabaria izan dugula esan dezaket, apurka apurka gure izena ezaguna egiten*

*ari delako, baina oraindik asko daukagu ikasteko".*

Asko ikasteko bide horretan, produktu berriak ateratzearen beharra somatu dute Astoren daudenek. Horrela, goretex-aren moda-merkatua eskuratzea lortu dute, Estatuan bakarrak jantzien arlo horretan. Horretaz gain, kanpora begira ere hasi dira, aurtien holandar

eta irlandarrekin trukerako akordioak lortu dituzte eta. *"Oraingoz, ondo goaz eta aurrera begira esperantza handiak ditugu, kalitatezkoa eta merkea izango den produktua egin nahi dugula eta. Badakigu oso zaila izango dela, nahi bezain ondo aterratzea: laguntza, sakrifizioa, konstantzia, jende talde ona eta dirua behar da aurrera egiteko".*

Bi adibide besterik ez dira izan, aurrera ateratzea lortu edo aurrera ateratzea lortzen ari diren bi enpresaren esperientziaren adierazgarri. Behar bada, erdi-bidean gelditu direnak ere asko izango dira, ilusio handiarekin hasi eta, bapatean, krisiaren eraginez alde batera gelditu direnak. Dena dela, bi horien esperientzia baliagarri izan daiteke aurrerapausua emateko ausardiarik ez dutenentzat, egoera honetan horrelako ekimenak behar dira eta, baina lan asko egin behar dela kontuan hartuta, hala ere.

## Saiolan: enpresa eta enpresari sortzailea

Aretxabaletako *Lantek*, Oñatiko *Ulma* eta *Cegasa*, Gatzagako *IGM*, *ATHLON* bera ere, eta bailarako beste hainbat enpresa Saiolan-en ekimenen ondorioa dira. Saiolan, askoren ustearen kontra, ez da ekimen edo ideia pribatuen bultzatzailea; unibertsitatetik ateratakoak enpresari izan daitezen lan egiten duen enpresa baizik, enpresak sortzeari begiratzen diona. Ideiak aztertu, proiektuen izangarritasuna begiratu eta baikorrak badira enpresa horiek gauzatu. Horixe da Saiolanen egunero egiten den lana.

Ekimen pribatuek ez dute argirik ikusiko Saiolanen. Horretarako, badaude beste toki batzuk: Sagazde, Diputazioak, Jaurilaritza... Beraz, ideien bat aurrera eramane nahi duen edonork beste toki horietara jo beharko du. Dena dela, krisi-egoera kontuan hartuta eta euskal ekonomiaren garapenari begira, guztiak izango dira beharrezko.

**AUTO  
ESKOLA**

**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89





## Aurtengo AUKEA sariak

Jakina denez, AUKEA sariak talde bat eta kirolari bati ematen zaizkie. Aurtan, Centraljet Euskal Air saskibaloitza taldeak eta Sonia Chaparro igerilariak eramango dituzte sariak. Sarituak eta izendapen berezia jaso zutenak jarraian:




Centraljet Euskal Air saski-baloitza taldea



Sonia Chaparro, 91ko onena

● **Sonia Chaparro**, Arrasate Igeri Elkarteko hamazortzi urtetako igerilari honek jasoko du AUKEA Arrasateko kirolari onenari ematen dion saria. Sariak, igeriketa munduan hiru urte daramatza bakarrik, baina Estatuko txapelkun izatea lortu du aletadun igeriketan eta gainera Erromako munduko txapelketan ere hartu zuen parte. Zorionik beroenak Soniari!




Gaizka Aranegi, judoka

● **Gaizka Aranegi**, judoka gazteak ez du inolako saririk izango baina bere izena sarituen artean aipatu zen. Gaizka lau urterekin hasi zen judoa egiten, oraingoz Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak lortu ditu bere kategorian eta etorkizun bikaina iragartzen zaio. Estatuko Txapelketan bostgarren postua lortu zuen.

● **Lordi Zuazubiskar**, pilotariaren izena saria eramateko aukeratuak izan zitezkeen artean egon zen. Lordik hamazazpi urte dauka, alebiretan Gipuzkoako txapelkuna izan da, iaz Euskadiko txapelkun ordea eta hainbat herri-torneotan txapelkuna ere izan da.

● **Centraljet Euskal Air**, saskibaloitza taldeak ere jasoko




Lordi Zuazubiskar, pilotaria

du saria. Iaz, mailaz igotzeko promozioa jokatu zuen eta zaletasuna berpiztea lortu, kiroldegia leporaino betetzen da eta.

**Zaldibarko** futbito txapelketako **antolatzaileak**, saririk gabe gelditu dira kirol-talde ez izateagatik. Baina, aipamen berezia jasoko dute beste batzuk kirola egin dezaten ahalegin handia burutu dutelako.

### Hurrengo partidua

Biak merezi zituen arren, puntu bakar batekin bueltatu zen Mondra Bizkaia aldetik.



Igandean, berriz ere, Mondrak etxean jokatu beharko du, Ondarroako Aurreraren aurka eta azken boladako joera baieztatzen bada, zaletuek sufritu egin beharko dute. Kuriosoa da aurtan Mondrak daraman ibilbidea, kanpoan puntu gehien atera dituen taldea izanik, goian daudenen artean etxean gehien galdu dituen delako. Jesus Iza-girre entrenatzaileak futbol zelaia eragina aipatzen zuen. Itxuraz Atxabalpeko futbol zelaia egoera oso ona da, baina itxura besterik ez dela dio, egoera kaskarrean bait dago. Hala ere, ezin da ahaztu zelaia egoera, ona edo txarra, berdintsua izaten dela bi taldeentzat; futbolekin egin nahi duenari, arerioaren jokoa apurtu nahi duenari baino kalte gehiago egiten badio ere.

Zelaia alde batera, Mondrak ez luke inolako arazorik izan behar Ondarroako Aurrerari irabazteko, zelaian gerta daitekeena beste kontu bat izan arren. Favorito arrasatearrak, eta hori ikusi nahi duenak Atxabalpen 3.45etan zita.

**ITSASKI**  
arrandegia  
Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa  
Arrasate 79 98 94

**Begoña**  
lurrindegia

Drogeria / Jostailuak  
Opariak  
Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa, Tfnoa: 79 03 73

**HUETO** Doktorea

**Eztarria, sudurra,  
belarriak**

Txanda eskatzeko: 79 81 11  
79 81 00


Olarte kalea, 43 Arrasate



# PODIUMA

## EUGENIO ARANA

### Lehenengo mailara igotzeko asmotan



**E**ugenio Arana Arrasatekoa da eta Eroski bidaietan lanean badihardu ere kirola den guztia gustatzen zaio eta praktikatu egiten du. Baina federatu gisa futboleant, rugbyant eta futbitoan ibili da. *"Betidanik jokatu izan du futboleant, Pedruskon sei urte, iaz Gasteizko talde baten aritu nintzen eta aurten Brues-en nabil erdikaldeko aurrelari moduan"*.

Futbola ala futbitoa berarentzat politagoa zein den galdetzen diogunean, ikusteko futbola eta egiteko ere konplotoena futbola dela esaten digu. Zailena, berriz, *"zailak biak dira, futbitoan teknika gehiago behar da eta futboleant indarra. Ezberdinak dira baina gogorragoa futboleant jokatzeko da. Futboleant egiteko, kondizio fisiko hobeak eta erresistentzia gehiago behar dira"*.

Gaur egun futbitoan bakarrik ari da eta hasiera baten hobya bazen ere, dauden tokian daudelako lan gehiago egin behar dute eta hobya baino serioagoa bihurtu da. *"Horrelako maila baten egoteko federazioak, kantzak eta guzti hori antolatuz egin behar da"*.

"Futbol Sala Arrasate" da taldearen izena, nahiz eta jende gehienak *Construcciones Brues* izenarekin

ezagutu. *"Bigarren hori abizena izango litzateke enpresa gure patrozina-tzailea bait da"*.

Badirudi ideia Arrasaten futbitoko talde bat osatzea zela baina Gipuzkoan bidaiak luzeagoak direlako ez zuten nahi, *"gure asmoa Araban jokatzeko baina ez hirugarren maila baino bajuago; dena den, horrela suertatu izan balitz jokatu egin behar izango genuen baina Eskoriatzako mutil bat ezagutzen genuen eta horren bitartez lizentzia federatiboa lortu genuen, horrela sortu zen taldea, oso talde ona. Ohorezko dibisioan jokatu duen jendea ere badabil, eta horretaz gain, asko entrenatu dugu eta gauzak nahiko ondo dihoazkigu"*.

Aurten lehenengo gelditzea datalede honi interesatzen zaiona, nazionalera igo ahal izateko, *"baina datorren urtean ikusi egin behar ko ditugu ditugun posibilitateak, zeren bidaiak askoz luzeagoak izango dira gero"*

#### ◆ Cnes. Brués lidergoan

Gasteizen Bar Marinori 1 eta 4 irabazi ondoren, Cnes. Brués futbito taldeak txapelketako lehen postua eskuratzeko lortu du. Hor jarrailzen badute, arrasatearrek mailaz igotzeko aukera izango dute. Hurrengo partidua, larunbatean jokatu ko da Iturripen, arratsaldeko betan eta sailkapeneko hirugarren postuan dagoen taldearen aurka.

#### ◆ Arrasate Kirolak-ek porrota

Eskubaloit taldeari, mailaz igotzeko, ezinbestekoa zitzaion joan den asteburuan Donostian Carmelo taldeari irabaztea. Arauzko denbora pasatu eta gero, markagailuak 19-17ko emaitza adierazten zuen. Beraz, arrasatearrek mailaz igotzeko zuten esperantzei agur esan behar. Azken partiduetan erakutsi dutena ikusita, datorren denboraldian, galdutako maila berreskuratzeko moduan izango dira arrasatearrak.

#### ◆ Nesken partidua igandean

Zumaian 0 eta 3 irabazi ondoren, hil edo biziko partidua dute Mondra taldeko neskek igandean. Atxabalpera Eibar taldea etorriko da, kategoriako onenetarikoa eta arrasatearrei, seguruen, kostako zaie partidua aurrera ateratzea. Horretarako, Mondrako nesken ahaleginez gain, ikusleen laguntza ezinbestekoa izango da. Txarrena, partiduari hasiera emateko ordua, goizeko 9.30ak.

#### ◆ Centraljet-en partidu berria

Xerox Getxoren aurka 69-67 galdu eta gero, Centraljet Euskal Air taldeak aste honetan etxean jokatu ko du, Barakaldoko Paulésen aurka. Partidua ez da erraza izango, bizkaitarrei garaipenak bakarrik balio die A-1ean sartu ahal izateko eta. Arrasatearrak dira faborito, baina ikusi egin behar larunbatean Musakolan arratsaldeko betatik aurrera.

**Gabriel Elorriaga Dka.**

**Loditasuna • Zelulitia  
Zelulolipolisiaren  
tratamendua**

Santa Kruz, 24-1º (1º C Eskailera)  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde, 23-2. Ezk.  
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90



# Kupelak kulparik ez

**A**utobus bete la-  
gun batu gin-  
tuen Besaide  
Mendizale  
Elkarteak au-  
rreko domekan menditik ze-  
har buelta bat eginda gero  
Astigarragako Petritegi sa-  
gardotegian bazkaria egite-  
ko. Goizeko zazpiretan ir-  
tenda zortzi t'erdietan Nafa-  
rroa eta Gipuzkoako mugan  
geunden, Leitzarar erreka-  
ren ertzean. Ibilbidea: Urto  
mendatetik Arano herrira  
joatea.

Eguraldia portatu zen,  
tristeza izanagatik sikera  
aterri egin zigulako. Aten-  
tzioa deitu ziguten paraje  
hoietako baso sail eta erreka  
garbiek eta eraikitako ehiza  
puesto lerroek ere, gainekal-  
de guztietan zeuden eta.

Beranduen iritsitakoak  
Aranora ere ordu bata ingu-  
ruan heldu ziren, ondoren  
tripa zorriak asetzerá Petrite-  
giko sagardotegira. Politto,  
politto jendea animatuz eta  
berotuz joan zen, ekarritako

gosearen ondorioz txuletei ez  
zitzaien okela haundirik he-  
zurrera pegatuta gelditzen eta  
kupelari eginiko bueltak gero  
eta luzeagoak ziren eta kan-  
tariagoak. Kontuak kontu,  
egundoko sagardo mordoa  
edanda gero kontu kontari

heldu ginen Arrasateraino  
txoferraren formalidadeari  
esker, arratsaldeko zazpire-  
tan.

Datorren urterako ere,  
aurtengo udan sagarrak egi-

ten bada behintzat, egin be-  
harko beste buelta bat ere.

HANKAMOTZ



## Beti Modari Begira

**SANDRA ETA MARCO**  
BETAURREKOAK

**2.550** Pta.

Betaurrekoen egun eguneko moda zure esku  
2.550 pezetatan. Zure begiradaren kama  
eragingo duten Sandra eta Marco betaurreko  
berriak J. LARRANAGA OPTIKA bakarrik  
aurkituko dituzu. Moda eta prezioa zuretzako gertu  
MULTIOPTICAsen optika guztietan.



San Pedro, 22 - BERGARA  
Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
J. M. Baradaran Enparantza, s/n - ORDIZIA

**JOSTEKO**

**OIHALAK**

Errekabarren, 20  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 80 90

**BEVERLY**

**TABERNA**

Gipuzkoa Etorb., 9 Tfnoa: 79 16 99  
ARRASATE



## Beira biltzea, guztion lana da

**G** abonak pasa ondoren Udalaizpetik hurbiltzen gataizkizue gure inguruko hainbat arazotaz aritzeko asmoz. Oraingo honetan, beiraren bilketari buruzko aipamen batzuk adierazi nahi dizkizuegu.


Izugarrizko poza sentitu dugu, urtarrileko egun hauetan, gure herrietan sakabanaturik dauden beira kontenedoreak gainezka zeudela ikusita. Kuriositatez, Mankomunidadeko beste hainbat herritara hurbildu ginen Arrasaten ikusitakoa espejismo hutsa zen ala ez baieztatzeko. Horrela, arazo honetan jendearen jarrera benetan

ingurugiroaren aldekoa izan dela ikusi izan dugu, guztira bilduta egongo ziren beira tona horiek erre edota nonbait pilatzea ebitatuz.

Bilketa hauen bitartez, denon artean, ondorengo etekinak lortzen ditugu, besteak beste:

1.- Beira berria egiteko erabiltzen ditugun lehen-gaiak bere tokietan uztea, behar beharrezkoa den garaietan erabili ahal izateko.

2.- Udaletxearen hainbat gastu ekonomiko gutxitzea; beira garraiatu eta tratatzeko gastuak, besteak beste.



3.- Gure inguruko hainbat leku babestea.

4.- Beiraren ekoizketarako behar den energia (ura, gasa, petroleoa,...)

gutxitzea.

Beste hainbat emaitza positibo lortuak izanik eta aipatuak ez izan arren, Zorionak guztioi!!!

## Jolasean ikasi

Hezkuntza-erabilerrako aukera asko eskeintzen dizkigute jolasak. Udako Ingurugiro Eskolan (UIE) planteatu eta egiten ditugun aktibitateen artean, jolasak leku baliotsu bat du, bi arrazoi hauengatik batez ere:

1.- Jolasaren elementuek (marrazkiak, hitzak, kartak, txartelak,...) informazio pedagogikoa dutelako.


2.- Jolasa aurrera doan heinean, saolasaldien bidez, informazio hori aplikatu eta indartu daitekeelako.

UIE n erabiltzen ditugun jolasak ingurugiro arloari

lotuta daude, hainbat gai ikutzen direlarik (degradazioa, izaki bizidunen desagerketak, kontsumoa,...) Baina, agian, garrantzitsuena zera da: jolasek topaketa bat bezala funtzionatzen dutela, partaideen artean ideia eta informazioen truketzea sortuz.

Irakasleok jokatzen dugun papera honako hau da: jolasean agertzen diren arazo eta egoerak gure inguru hurbileko beste hainbat arazoekin lotu, eta hauek, ingurugiro arloarekin erlazionatzea.

Egoera honek ingurugiroko gaiei buruzko kezka edo ardura sortu beharko du. Beraz, jokalarien eguneroko bizitzan ingurugiroaren babeserako ekintzak proposatzea bultzatuko da, bakoitzak dituen baloreak landuz.





# Herriko rock taldeentzako lokal berriak

Urteetan, herriko rock talde ezberdinak, entseiatu ahal izateko lokal baten eskean ari izan zaizkio Udalarari. Orain gutxirarte alferrik, ordea. Baina gazteria zerbitzua eratu zenetik, Udala eta rock taldeen arteko harremanak (ordurarte, tirabira eta ezinikusiez gain, gauza gutxi), errotik aldatuz joan dira, guztien onerako. Gertatu beharrekoa zen. Gazteon artean rock taldeena garrantzizko fenomeno da, geroz eta indar handiagoa hartzen ari dena, eta Udalak ezin zituen begiak itxi ebidentzia horren aurrean.

Gauzak horrela, herriko hainbat talderen ekimen berri bati erantzunez, eta inguruko herri gehienetako ejenpluaren presiopean, gazte zerbitzua lokal baten bila hasi zen. Eta urtebete bide burokratiko luzearen ondoren, 89ko irailean, Gobernu Batzordeak Epeleko ur araztegi zaharra, aspal-



di erabiltzen ez zena, rock taldeentzako entseitutoki bezala egokitzea onartu zuen, milioi erdiko aurrekontua tartean.

Bi lokal ziren, kaxkar-samarrak, eta ordurako 11 talde zeuden erabiltzeko zerrandan. Baina hasiera bat izan zen. Herriko rock taldeen fenomeno eta bere beharrak ofizialki onartzen zituen aurrekorik gabeko abiapuntua. Harremanak ondo jarraituz gero, etorkizunerako oinarria ezarria zegoen. Eta, bide ba-

tez, txandaka eta katxarroak karriatzeko arazoekin bazen ere, hasteko gogoaz zeuden taldeek bazeukaten iada non lehen urratsak eman, non ilusioak landu. Ez da gutxi, alajaina!

Bi urtebete igaro dira. Orduko 11 taldeak 14 dira orain, eta guztiak Epeleko lokalez baliatu nahiz. 92ko urtarrilaren 15a, erabiltzaileek lokalak desalojatzeko epea. Arrazoiak: Udalak lokalak anpliatu behar ditu, tartean 8 milioitako aurre-

kontua dagoelarik. Lana bukatuta dagoenean (apirilerako espero da) 4 lokal txiki eta trasteak gordetzeko biltegi bat izango dira.

Bitartean, ez da izango non entseiatu, edo bakoitzak bere bidea bilatu beharko du, eta behar bada ez dira kristoren lokalak izango, eta txandaka jarraitu beharko, dute eta materiala karriatzen, baina ez al du pena merezi?

Orain urte gutxi aurrekontu hori eta 4 lokal izatea pentsaezinekoa zen. Orduan hasi ginenok ez geneukan halako aukerarik.

Eta etorkizunean? Gaur lokalok etorri badira, zer ekarriko die etorkizunak herriko rock taldeei? Abiapuntua uztartua dago eta ez dago zertan atzera egin, fenomeno osasuntsu bait dabil (22 talde gazteria bulegoan jasota daudenak). Bide onetik goaz. Eta, dudarik ez, inbertsio ona da.

PATXI MONTERO


**Monte  
taberna**

Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56

**Osorik  
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

**IBARRA Garajea S.A.**



**EBRO  
NISSAN**

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

**Berango**



**Sukalde-altzariak,  
mahaiak eta  
aulkiak**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE



◆ **Grabatzeko dirulaguntzak**

Gazteriaren Batzorde honek proposatuta, 1991ko otsailean Gobernu Batzordeak onartu zuen herriko rock taldeei maketak grabatzeko dirulaguntzak eskaintzea, Gazteriaren Batzordeak aurtengo grabaketa-orduko prezioetan oinarriturik honako baremo hau egin du: 6-8 abestitako maketak egun baten 8 orduz eginez gero 65.000 PTA izango dira, 2 egunetan eta 16 ordutan eginez gero, 110.000 PTA eta azkenik, 3 egunetan 24 ordutan eginez gero, 160.000 PTA. Dena dela, hau ezingo da erizpidetzat hartu erreferentzia moduan baizik eta, aurkezten diren dirulaguntza-eskariak banan banan aztertuko dira.

◆ **Musika Ikastaroa**

Ordenagailu bidezko musika-ikastaroa antolatu nahi du Gazteria Zerbitzuak, horretarako Otsailaren Sean, asteazkena, demostrazio bat egingo da Monterrongo hitzaldi-aretoan arratsaldeko 7etan, sarrera doan izango delarik. Egun honetan jendeak interesik baleuka, ikastaroa antolatzeko pausoak emango lirateke.



# Bego Lekunberri

## Ahots eztidun abeslaria

**Bego Lekunberri, 16 urteko atxabaltarrak bere aitaren laguntzaz kantatzeari ekin dio. Jadanik estenatokiren batetara igo dira eta euren kantak grabatu ere egin dituzte.**

— **Nola hasi zinen kantari?**

— Egia esan kantatzea beti izan dut gustoko. Famili giroan edo lagun artean aitek eta nik askotan abestu izan dugu. Ondoren esparru hori zabaltzeko nahia jaio zitzaigun eta, eta horretantxe dihardugu. Bestalde, nire hobya abestea dela esango nuke. Hori dela eta Aretxabale-tako Abesbatzan izan naiz orain arte, eta horrek izugarri lagundu dit ahotsa lantzen.

— **Nork konposatzen ditu kantak eta hitzak nork jartzen dizkie?**

— Bi zerégin horiek gure aitek egiten ditu. Nik abestu baino ez dut egiten eta aitek pianoaren laguntzaz kantak konposatu. Noizbaiten pasa zait burutik musikari letra jartzeko asmoa, baina egia esan ez da batera erraza. Aitari ere horixe kostatzen zaio gehien.

— **Nola definituko zenuko zuen musikaren**



**estiloa?**

— Guztiz estilo berria da. Gure inguruan orain arte egin denaz gure musikak ez du handiegirik, desberdina dela esango nuke. Bestalde, hitzak nahiko tristeak edo badira, aitek bere gaztaroan oinarriturik asmatzen bait ditu hitzak. Baina ala ere denetik dugu, kanta alaiak zein tristexegoak.

— **Opor ostean abesti batzuk grabatu zenituzten.**

**"Gure kantuak estilo berrikoak dira"**

**Jendeak zuen berri izateko aukera ederra, ezta?**

— Bai, asmo horrekin grabatu genuen "Juan Luis eta Bego, Euskal Kantu Berriak". Arrasaten Pepe Arregik bere etxean duen produkzioan grabatu genituen 11 kantu. Hasieran 100 kopia jarri genituen salgai eta guztiak saldu ziren; ondoren beste 200 kopia atera ditugu eta orain artekoaz behintzat oso pozik gaude.

— **Esperientziaren helburuak bete dira?**

— Beno, gure berri jende gehiagok duela esango nuke, eta hori ez da gutxi. Irratietara ere bidali genuen kopia bana, eta adibidez Arrate Irratitik deitu digute bertara grabatzera joatera gonbidatuz. Bestalde, Kataluñako telebistan gure berri badutela esan didate. Piskanaka piskanaka hor gabilta, lekutxo bat aurkitu nahian.

— **Ahots ona duzu?**

— Hori esaten dit jendeak, ahots ezitia dudala. Nik ez dakit, grabazioa entzun nuenean ume ahotsa nuela iruditu zitzaidan, eta aitek, berriz, umetan hobe nuela esaten du. Beharbada oraindik ez dut ondo definitua.



**J. Ramón Otamendi**

**HARATEGIA**

Ferrerias, 20 • Tel. 79 62 28

**ARRASATE**



Aste gazte

"Izan gaitezen herrialde gazte, berri, dinamiko eta bultzatzailea", hona hemen egungo ideologi gakoa. Baina, errealitatean, gaztaroa ez da zahartzaroa baino birtutetsuagoa, batez ere azken hori jator izatera iristen denean.

J. L. Delgado (TVEko aurkezlea)

Ikasle-elkartrukea

• 92-93 ikasturtean BBB edo UBI ikasketak Amerika Latindarrean edo Japonen. Baldintzak: 18-15 urte, aurreko ikasturte osoa gaindituta eduki eta japoniera edo ingeles hizkuntzen oinarriko ezagupenak. Elkartruke-programa denez, atzerrira doan ikaslearen familia ikasle atzerritar baten anfitrioi-



izango da. Prezioak: 595.000 PTA, Japon: 745.000 PTA. Eskeraek aurkezteko epea: martxoak 1.

Uned-ikastaroa

• "Kuaternarioa Euskalerrian", Gaeografia eta Historia Sailak antolatuta. Hitzaldiak eta txangoak. Otsailaren 15etik apirilaren 11ra, larunbatero, 10etatik 13etara. Matrikula epea: otsailaren 13rarte. Prezioa: 13.000 PTA.

Lehiaketak

• Bilboko pop-rock IV.

lehiaketa. Hizkuntza librea. Pop, Rock eta muga hauen barruko barianteak onartzen dira (ska, heavy, rithm & blues, rock & rooo, garaje, rap,...) Sariak: LP-grabaketak eta 250.000 eta 150.000 PTA bitarteko ordainsariak. Taldeak berak egindako kantaz osatutako maketa, singela edo LP-a bidali behar da. Epea: otsailak 15.

Musika-ikastaroa

• Ordenagailu bidezko musika-konposaketaren demostrazioa. Monterronen, hitzaldi aretoan. Otsailaren Sean (asteazkena).


Eski-kanpaina

• Urtarriletik apirilera arte asteburuko irteerak Formigalera. Ikasle eta langabetuei klaseen %50eko deskontua egingo zaie. Gazteentzako Informazio Bulegoan.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

# PROSPERITY PLUS!



■ Helburua

Zorionaren ezaguera den aparotasuna sortaraztea.

■ Eskaintzen direnak

- Zure baitan diren giza-baliorik onenak eta benetakoen aurkitzea.
- Gizarte, harremanaz zein zure beste arloetako arrakastan tartekatzen diren beldur, eragozpen eta bihotz-ikarak desegin ahal izatea.
- Atsegin, pake eta osasunezko bizi-indarra atxekitzea, bizi oparoa eta interes sozial handikoa.

■ Non

"Europa" biltzar etxean, "Nafarroa" aretoan. GASTEIZ.

■ Noiz

Otsailak 8 eta 9, larunbata eta igandea.

■ Mintegia JAUME GUASCHEk zuzenduko du.

■ Informazio gehiagorako:

Josu Aranzabal  
Dr, Bañez, 10-1. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 18 18

Cristina Iraegi  
Martoko, 14-3. Ezk. BERGARA Tfnoa: 76 45 25



## ETXEBIZITZAK

- Logela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Eskoritzan etxebizitza alokatuko gendue lehenbailehen. Tfnoa: 73 04 20. Amaia.
- Etxebizitza salgai Zigarrolan. 4 logela, egongela-jangela, sukaldea, bainu gela, guztiz amueblatua. Dei egin 79 18 34 zenbakira.
- Gela alokatzen dugu ikasleen etxebizitza baiten. Tfnoak: 74 00 37 eta (94) 630 85 40 / 684 16 65.

## LANA

- Ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar dut Gasteizen. Interesatuak dei egin 945-28 67 44 edo 70 03 80 tfnoetara.
- Etxeko lanak egiteko prest esperientziadun emakumea. Dei egin 79 84 12 telefonora.
- O.H.O.ko 7. mailako matematikak eta hizkuntzako klase partikularrak behar dira Aretxabaletan. Astean hiru ordu, astelehen, astearte eta ostegunetan 6.30etatik 7.30etara. 79 41 72 telefonoan 7.30etatik aurrera. Mari Jose.
- Neskak gaixoak zaintzeko prest, etxean nahiz ospitalean: 79 69 41.
- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko prest neska gaztea: 79 99 17.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 77 05 47.
- Pertsona bat behar da REM 1. kurtsoko klase partikularrak emateko. Tfnoa: 79 68 04. Xabier.
- Esperientzia duen neska prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 72 92. Elena.
- Emakume euskalduna behar dugu etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Dei egin 7etatik aurrera 77 05 22 tfnora.

- Emakume euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- 1. eta 2. REMeko klase partikularrak emateko prest (bereziki matematika, kimika, eta fisika). Dei egin 79 79 14 tfnora. Sergio.
- Klase partikularrak ematen ditugu Oinarrizko Hezkuntza Orokorrekoan eta euskara maila guztietan. Tfnoa: 77 04 98.
- Arrasaten bizi den ikasle batek OHoko klase partikularrak emango lituzke baita BBB, UBI eta REMeko kimika ere. Merke-merke. Dei egin asteburuetan (94) 630 85 40.
- 7. mailako matematika eta hizkuntza klase partikularrak behar dira. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 20 40 tfnora.

## SALEROSKETAK

- Autorako erremolkea salgai. Tfnoa: 76 45 12.
- Eskupeta paraleloa salgai, oso egoera onean. Tfnoa: 76 45 12.
- Birkientzat kotxe-aulkia salgai, oso egoera onean dago. Dei egin 10etatik aurrera 94-658 21 97 tfnora. 10etatik aurrera.
- GAC First mobilette salgai. Dei egin 79 45 74 tfnora. Aitor.
- la berria dagoen arko-i-zozkailua saltzen da 65.000 PTAtan. Neurriak 1,30 zm. luzeeran, 0,90 zm. altueran eta 0,65 zm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbatera bitartean 94 - 682 04 83 tfnora.
- Talbot Horizon autoa salgai. SS-N matrikuladuna. Motorea errektifikatua eta errebisioa eta aseguru abuztuan eginak ditu; beraz, aukera ezin hobea. Interesatuak dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. asteartetik larunbatera bitartean goizeko 9etatik 12.30etara.
- Orbea markako lasterketa-bizikleta berri-berria salgai. 25.000 PTA Tfnoa: 79 40 44.

- Txapa kalefaktorea salgai, egoera onean, baita gas naturalarentzako ur berogailua ere. Tfnoa: 79 59 72.
- Colnago markako mountain bike-a saltzen da. Atzelaldean kubieta berria eta grupo osoa Shimano markakoa ditu. Oso egoera onean dago. Prezioa 50.000 PTA. Dei egin gaueko 8etatik 10etara 79 08 48 tfnora.
- R5-a salgai 100.000 PTAtan. Dei egin 79 35 40 tfnora.
- Hiru mendiko bizikleta salgai. Mendiz, Otero eta Orbea markakoak. Tfnoa: 77 04 21.
- Collie txakurkumeak ditut salgai. Tfnoa: 76 64 83.
- Fondoko hiru eski pare salgai. 6-8, 8-10 urte eta nagusientzat. 5, 7 eta 10 mila PTA, dena osorik. Tfnoa: 76 32 69.

## DENETARIK

- Bilbora eramateko prest dagoenari: mesedez, deitu berriro, zure telefono-zenbakia gaizki daukat eta. Tfnoa: 79 22 63.
- Portugaleteko Aritz Gonzalez bere urtebetetzean zorionak Arrasateko senide guztien partez.
- Larunbatean San Frantzisko inguruan, harribitxi landuz osatutako urrezko itxiduradun bi bueltako koilarra galdu nuen. Mesedez ekarri Arrasate Press-era.
- Gabon zaharrear urrezko eskuturrekoa galdu zitzaidan. Norbaitek aurkitu balu, eskertuko nioke 79 53 53 tfnora. deitzea.
- 3 txakurkume ditut erregalatzeko, oso politak dira. Dei egin 79 66 45 tfnora.
- Zorionak Susana Bragadori. Bere anai-arreba guztiek koinatuek, aitatxok eta amatxok.
- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnora.



## ARRASATEN HILDAKOAK

Jose Maria Elizegi Insausti,  
urtarrilaren 21ean. 63 urte.

Candida Aizpiri Arrieta,  
urtarrilaren 24an. 83 urte.

Roman Alberdi Iribecampos,  
urtarrilaren 27an. 64 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15



# Zer nahiago?

## Jose Angel Rodriguez

### Etxebeste aterkitegi eta zorrozketaren dendakoa



- **Kolore askoko aterkin handiak ala plegablea?** Kolore askoko aterkin handiak.
- **Kutxiloak zorroztu ala aterkinak konpondu?** Aterkinak konpondu, hobeto moldatzen naiz.
- **Zorroztu, makinaz ala eskuz?** Makinaz, eskuz zorrostean ez du konpentsatzen.
- **Bezeroak emakumezkoak ala gizonezkoak?** Emakumezkoak, errezago ulertzen zaie.
- **San Juanak ala Santamasak?** San Juanak, zalaparta gehiago egoten da.
- **Loreak ureztatu ala alfonbrak astindu?** Alfonbrak astindu.
- **Irakurtzeko, nobelak ala egunkaria?** Nobela bat, egunkaria gutxi irakurtzen dut.
- **Kafea ala tea?** Kafea koñak txurrustada batekin.
- **Mikel Laboa ala Hertzainak?** Mikel Laboa.
- **Toledoko azeroa ala Bilbokoa?** Kutxiloendako Toledokoa eta esturturendako bada, Bilbokoa.
- **Oporretan hotelean ala kanpin dendan?** Kanpin dendan, merkeago delako eta norberaren kasa ibili daitekeelako.
- **Yamaha Virago ala Harley Davidson?** Yamaha Virago, nik horrelako bat daukat eta makinaria egunekoagoa da, Harley Davidson mito bat da.
- **Heldulekudun aterkina ala gabe?** Heldulekudun aterkina.
- **Goiz erdian salda ala pintxo beroa?** Pintxo beroa.
- **Motokrosa ala motor lasterketa?** Ez bata eta ez bestea, neri gustatzen zaizkidanak motor kontzentrazioak dira.
- **Lana goizez ala arratsalde?** Goizez arinagoa da.
- **Motorrak ala dendari eta konpontzaile?** Motorrak.
- **Trenez ala hegazkinez?** Hegazkinez, bizkorragoa da.


# Bertsotan

## EAE-ko kultur aurrekontuak

1  
Denok gabiltza kultur saileko aurrekontuetaz teman Arregi jaunak nahiz eta digun gauza ugari hitzeman bat bera ere ez du betetzen denok diogu antzeman museoetan zenbait lan beste mordo bat zineman bide txarretik dihoaz gauzak nora nahi gaitu eraman? atzerritarrei eskua luza etxekoei bizkar eman.

2  
Besteen lanak gustoz azaldu ta baztertu bertakoak nahiz diru asko jaso dituzten Guggenheim eta "Expoak" berriro ere pobre dirade lehen diru gabekoak denak Arregin asmoak bene-benetan gaiztoak gure etxetik hasi gaitezen eta gero gerokoak Euskal-Herriak ez dauka zertan zerbitzatu kanpokoak.

AINHOA AGIRREAZALDEGI



# Basabe jatetxea

## Menu eta afariak Boda eta banketeak

Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

## ARGI PLASTIC. C. B.

### PVC eta aluminiozko leihogintza

Berria Arrasaten! Diseinu berriak!

Axeri, 3 ARRASATE  
Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30





**J**

uan zen astean edurrak kuku bat egin zuen gure paraje hauetan, baina ikusi orduko desagertu zenez, mendira joaten ez direnek

kalean edurra edukitzea zer den gogora dezaten, 1945eko edurtean Portaloian ateratako erretratoa ekarri dugu aste honetan orrialde hauetara. **Angel Arregi Erguin** eta **Joakin Bedia Iriarte** dira gaban luzez ageri diren bi horiek, eta hamazortzi urte besterik ez zituzten orduan.

Elurte itzela egin ei zuen urte hartan eta Kanpazar ingurko zelai batzuetara edurpelotaka egitera, eskiatzera edo ipurgainean ibiltzera joan omen ziren. Egitekoren bat egingo zuten, korrika alde egin eta baserritarra atzetik kexuarekin etorri zen eta. Arregik Torresen botikan laguntzaile gisa lan egiten zuenez, han plantatu ei zen baserritarra, haserre.

Joakin Bedia Arrasaten bertan bizi da eta Angel Arregi, berriz, istripuz hil zen Jaenen orain 27 urte eta bertan dago lurperatuta. Alaves, Jaen eta Sevilla bezalako taldeetan futbolaria izan zen.

Oharra: Arrasate Pressen 100. alean ateratako Fotozaharrari buruz zuzenketa bat etorri zaigu. Argazkian zutik ageri dena Fernandez dela esan baziguten ere, **Santiago Saez San Millan** bilbotarra da.

**URONDO**  
elektrizitatea



- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE


**UGARTE**

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96  
Telefax: 793412



# Gurutzegramama




### Horizontalak

1. Arrasaten haitz ezaguna
8. Garaipena
9. Semearen arreba
10. Bi aldiz, indaba
11. Ibai gainean
12. Bizkaiko mendia
13. Aita ez den gurasoa
14. Joan gora
15. Bat eta bat
16. Amaitu
18. Nafarroako udala

### Bertikalak

1. Jabea
2. Atsekabe
3. Hedaduraz 2. probintzia
4. Jakoben 3. semea
5. Emakume izena
6. Kasik
7. Joan zaitez
10. Emakume izena
12. Okindegietan salgai
14. (Ald.) Ex
16. (Ald.) Samarioa
17. (Ald.) Sarri Birmaniako  
1. ministroa



JUAN BAUTISTA AGORRIA

# BIDEO-EMANALDIA

## Txip aparta

**Tokia:** Monterron kultur etxea


**Eguna:** otsailak 1, larunbata

**Ordua:** arratsaldeko 4.30etan


**Prezioa:** 50 pezeta

**Sarrerak:** Monterronen

**Antolatzailea:** Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea







# Telebegi

## Alkatearekin Berbetan

Ostegunean, 9.15etan

Ostegunean, otsailak 6, *Alkatearekin Berbetan* saioa izango duzue ikusgai. **Jon Sarasuak** moderatuta, **Xabier Zubizarretak** Herri Irratiko **Alberto Gorritiberea**, **Joxe Aranzabal** Arrasate Press eta ATBko zuzendari izandakoa, ETBko **Aintzane Gardoki**, eta **Jose Mari Velez de Mendizabal** idazle ezagunaren galderak erantzungo ditu.

Zuek ere saioan parte hartze-ko aukera izango duzue. Horretarako, 77 08 15 tfnora deitu beste-rik ez.

- ETBn erdararen aldeko apustua egiten ari direla iruditzen zait. Ohizko bihurtu da dagoeneko euskal katean publizitatea erdaraz egitea. Eta hori gutxi balitz, saio arrakastatsuenetarikoa genuen igande gaueko *Kirolez kiroi*, etsaia bere etxean jaito zaio: *El Derby*, igande gauean bertan erdal katean.

- Tele 5 zabor hutsa da. Gehienetan *Fulanita y sus Menganitos* bezalako bodrioak ematen dituzte. Eta noiz edo noiz zerbait ganorazkoa emititzea bururutzen bazaie, ikuslea leher eginda uzten dute publizitaterako sartzen duten eten mordskarekin.

- Antena 3, ez fu, ez fa, ezta antzekorik ere.
- Canal Plus ikusteko hilero-hilero kuota bat pagatu behar izatea ere... ni behintzat ez naiz hortik pasako.

- TVE PSOEn boletina bihurtu da. Sozialistek txistua jo eta TVE dantzan.

- ATBn seguruenik aipatutako guztiak baino dexente txarragoak gara; baña tira, sikiera Arrasatekoak gara, hemengoak, bertakoak: Mondraueko Telebisifue.

JON ANDUEZA

P.D: Zorte on, Andoni.

### Erreportaiak

\* Ikastolaren 25. urteurrena  
\* Arrasate 2.000. urterantza

**Asteartean  
9.15etan**

### ATBk

Asteburuetarako kazetariak behar ditu.

**la ba, deitu:  
770690-770815**

### Txatxaran

Naiara Ezeiza,  
Akonkaguatik bueltan

**Asteazkenean  
9.15etan**

## Programazioa

2

### IGANDEA

9.15etan, *Mondragol*. Mondra-Aurrera Ondarru partiduaren ordu erdiko laburpena. Jose Luis Ezkurra eta Jon Andueza.

3

### ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia.  
9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko Kirol-mundua- ren erreposoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uri- besalgorekin.

4

### ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*.  
9.15. *Erreportaiak*. San Fran- tzikoko Xabier ikastolaren 25. urteurrenari buruzko lana, eta azken boladan Arrasaten botatzen ari diren etxeei buruzkoa.

5

### ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*.  
9.15. *Txatxaran*. Maider Egues- ek zuzendutako elkarriketa saioa. Aste honetako gonbi- datua: Naiara Ezeiza, urta- rrilaren 15ean 14 urterekin Akonkagua gailurrera hel- dutako gazte eskoriatzarra.

6

### OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Al- bistegia.  
9.15. *Alkatearekin Berbe- tan*. Xabier Zubizarretak Joxe Aranzabal, Alberto Gorritibea, Aintzane Gar- doki eta Jose Mari Velez de Mendizabalen galde- rak erantzungo ditu. Mo- deratzailea, Jon Sarasua.

7

### OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Al- bistegia.  
9.15. *Ostiral Musikala*: Marta Izagirrek zuzenduta, Arra- sate Musikali eskainitako saioa.




**Zein da Arrasaten gehien irakurtzen den prentsa?**

**ARRASATE PRESS, noski.**

**Beraz, zure publikitatea ARRASATE PRESS-en.**

**Inbertsiorik Onena!**



..... **ARRASATE PRESS Azoka kalea, 1 ☎ 77 08 15** .....